



emakunde2008txostena

emakunde**2008**txostena

emakunde emakumearen euskal erakundea

2008KO JARDUEREN MEMORIA



Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco



Izenburua: Txostena. Emakunde, 2008

Egilea: Emakunde / Emakumearen Euskal Erakundea
Manuel Iradier, 36 - 01005 VITORIA-GASTEIZ
Tfnoa.: 945 01 67 00
Faxa: 945 01 67 01
e-mail: emakunde@ej-gv.es
www.emakunde.es

Diseinua: equisbé

Inprimatzailea: Sacal

Ale-kopurua: 1.000

L.G.: VI-142/09

aurkibidea

Aurkezpena	11
1. Sarrera	13
1.1. Emakunderen eginkizunak	14
1.2. Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearen 20. urteurrena	17
2. Zuzendaritza kontseilua	21
3. 2008ko jardueren memoria	39
3.1. Lehenago azaldutako helburuak lortzeko (erakundearen helburuez ari da) jarraibideak sortzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat botere publikok jarraibide horiek aplikatu dituzten bultzatzea	39
3.1.1. Aholkularitza eta laguntza berdintasunerako planen eraketan, baita horien garapenean eta segimenduan ere	40
3.1.2. Planen, programen edo sektoreko arauen inguruko aholkularitza, sailen artekoa eta erakundeen artekoa .	45
3.1.3. Trebakuntza	48
3.1.4. Programa edo ekintza pilotuak diseinatzea, martxan jartzea, gauzatzea eta haien segimendua egitea.	51
3.1.5. Erakundeen arteko elkarlana bultzatzea	60



<p>3.2. Berdintasun politiken eta legegintza autonomikoaren segimendua, haiek emakume-gizonen berdintasun printzipiora egokitzeari dagokionez, inola ere baztertu gabe Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeari dagokion diskriminazioaren aurkako araugintzaren azterketa, ebaluazio eta ikerketa eskumena . .</p>	63
<p>3.3. Lege erreformak egiteko proposamenak lantzea, bi sexuen arteko berdintasun egiazko eta eraginkorra zailtzen edo eragozten duten trabak kentzeko, baita 4/2005 Legea garatzeko araudia proposatzea ere</p>	64
<p>3.4. Erkidegoko administrazioak arauak egiteko sustatzen duen prozeduraren barruan txostenak zabaltzea, eta 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan xedatutakoa behar bezala aplikatzen dela egiaztatuta, eta, hala badagokio, hobetzeko proposamenak egitea</p>	65
<p>3.5. Gobernuko sailek, foru aldundiek eta tokiko erakundeek emakume-gizonen berdintasunerako dauzkaten planak Eusko Jaurilaritzak legegintzaldi bakoitzean onartu behar duen plan orokorrean aurreikusitako interbentzio ildoetara eta jarraibideetara egokitzeari buruz txostenak zabaltzea . . .</p>	67
<p>3.6. Esparru politiko guztietan generoko ikuspegia sartzeko metodoak prestatzea eta bultzatzea, eta, bereziki, jarraibideak proposatzea generoaren araberako eraginaren alde aurreko ebaluazioa egiteko eta administrazio araudian zein jardueran emakume-gizonen arteko berdintasuna sustatu eta desberdintasunak desagerrarazteko neurriak sartzeta</p>	68
<p>3.7. Emakumeen eta gizonen berdintasun esparruan eskumena duten erakunde, organo eta unitateetako langileen eginkizunari eta trebakuntzari dagokionez, bete beharrezko gutxieneko baldintza oinarritzako eta komunaren proposamena egitea EAEko herri administrazioetako organo eskudunei . . .</p>	69
<p>3.8. Jarduerari, aholkularitzari eta EAEko herri botereekiko lankidetzari bultzada ematea emakume-gizonen berdintasun alorrean eta, bereziki, emakume-gizonen berdintasunerako prestakuntza planen diseinuan, emakumeen aurkako indarkeria kasuetan esku hartzeari lotutakoak barne</p>	70



3.9	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail Arteko Batzordearen eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearen Arteko Batzordearen zereginak bultzatzea eta koordinatzea, baita autonomia erkidegoko botere publikoen arteko beharrezko koordinaziorako neurriak bultzatzea ere, emakumeen egoeran eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eragina duten programei dagokienez.	71
3.10.	Emakumeen eta gizonen baldintza, behar eta interes desberdinak aztertzea, baita bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean haietatik eratorritako desberdintasunak ere, bereziki jarduera esparru guztietan gauzatu beharreko politika zehazteko ikerketak egitea sustatuz	72
3.11.	Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan dauden zerbitzuen eta programen eraginkortasunaren eta norainokoaren ebaluazioa	81
3.12.	Aholkularitza eta laguntzarako zein sustapenerako bestelako neurriak ezartzea, enpresak eta erakundeak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko planak, programak eta jarduerak garatzeko bitarteko material, ekonomiko eta pertsonalez hornitzeko	81
3.13.	Emakume eta gizonen arteko berdintasun esparruan zerbitzuak emateko erakundearen homologazioan erabil daitezkeen gutxieneko betebeharrak eta baldintza komun zein oinarrikoen gaineko eskumena duen organoarentzako proposamena	84
3.14.	Herritarrak sentsibilizatzea, eta horretarako egokitzat jotzen diren sentsibilizazio, sustapen eta hedapen jarduerak eta kanpainak egitea; bai emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esanahiaz eta garrantziaz, bai hura lortzearen eta emakumeen jabekuntzaren alde lan egiteko beharraz	84
3.15.	Harremanak eta parte hartzeko bideak ezartzea beren helburu edo funtzioengatik erakundearen xedek lortzen laguntzen duten elkarte, fundazio eta gainerako erakundeekin	99
3.16.	Beste autonomia erkidegoetako, estatuko eta nazioarteko antzeko instituzio eta erakundeekin harremanak eta partaidetza bideak ezartzea	103

aurkezpena

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 15.1 artikulua ezartzen du Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez euskal botere publikoen jarduerak bideratuko dituen esku-hartze eta jarraibideak modu koordinatu eta globalean jasoko dituen plan orokorra onartzeko betebeharra daukala. Artikulu beraren 2. idatz-zatiak dioenez, aipatutako plan orokorraren esku-hartze eta jarraibideen garapenean, Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak bere plan propio edo jardueren programak landuko ditu. Gaur egun indarrean dagoen plan orokorra *EAEko Gizonezko eta Emakumezkoen Berdintasunerako IV. plana* da.

Emakundek, agindu horiek betez, dokumentu bat sortu zuen; dokumentuak, oraingo legealdi honetan erakundeak izango dituen helburu eta jardueren ildo nagusiak jasotzen ditu eta, dokumentu horren harira, ondoren, urtero ekintza plan bat egin du.

Legealdi honetarako aipatutako dokumentu hori aurkeztutakoan adierazi zen «plan honetan bildutako ekintzaren batean aurreikusitako ebaluazio modalitateak gorabehera, haren segimendua erakundearen jardueren memorian azalduko dela, baita, Emakundek prestatu eta Zuzendaritza Kontseiluak onartu beharreko plana betez, botere publikoen jardueren urteroko memorian ere».

Ondoren aurkeztuko duguna goian aipatutako horietan lehena da, Emakunderen 2008ko jardueren memoria, hain zuzen. Dokumentu hori Eusko Jaurlaritzaren jardunaren segimendua egiteko txostenaren osagarri izango da. Azken hori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail Arteko Batzordearen harira prestatuko da, dokumentu horren prestaketa arautzen duen 2006ko abenduaren 26ko 261/2006 Dekretuak 2.e artikuluan ezartzen duen moduan.

2008an hogeitun urte egin ditu Emakunde / Emakumearen Euskal Erakundeak. Urteurren hori dela eta, memorian urteurrenari eta horren inguruan antolatutako diren ekimenei buruzko atal bat sartu dugu.

1. sarrera

Legealdi honetako Erakundearen Jardueren Planak erantzuten dio alde bate-tik Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak eta 214/2006 Dekretuak ezartzen dizkion betebeharren betetzeari, eta bestetik, EAEko Emaku-meen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planetik datozen konpromisoak betetzeari. Emakunde berdintasun politikak bultzatu, aholkatu, planifikatu, antolatu eta eba-luatzten dituen erakundea izateak eta IV. Plana Legearen edukiak betetzeko proze-suak zehaztu eta lehenesteko helburuarekin ezarritako jarraibideen dokumentua izateak, jardunbide biak eguneroko kudeaketa eta gauzatzean gainezartzea dakar, logikoa denez.

Emakundek 2008an egin duen lanaren inguruan hemen aurkeztuko dugun jardue-ren memoriak legealdi honetarako ezarritako ildo eta ekintza nagusiei egiten die erreferentzia. Izan ere, lehen esan dugun bezala, testuinguru horretan garatzen dira erakundearen urteko lan plangintzak eta egindako jardueren ikuspuntu oroko-rra eta testuingurua eskaintzen dute. Jarduera bakoitza eta erakundean horri da-gokion funtzioa lotzeko moduan antolatu dugu informazioa. Jarduera edo lan ildo bakoitzean 2008an egindako jarduerak ahalik eta zehaztasun handinez azaldu dira.

Erakundearen Zuzendaritza Kontseiluaren lanari dagokion atal bat ere badu me-moriak. Izan ere, erakundearen gobernu organoa den aldetik, planak, memoriak, arau jarduerak, bestelako jarduerak eta horien emaitzak ikusten eta onartzen ditu zuzendaritzak.

2008ko memoria honek, gainera, besteetatik bereizitako atal bat du, erakundea-ren 20. urteurrenari dagokiona. Dokumentuaren hasieran jarri da atal hori.

1.1. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legeak eta urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak honako betebeharrak ezartzen dizkiote Emakunderi¹:

- A *Lehenago azaldutako helburuak lortzeko (erakundearen helburuez ari da) jarraibideak sortzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat botere publikok jarraibide horiek aplikatu ditzaten bultzatzea.*
- B *Berdintasun politiken eta legegintza autonomikoaren segimendua, haiek emakume-gizonen berdintasun printzipiora egokitzeari dagokionez, inola ere baztertu gabe Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeari dagokion diskriminazioaren aurkako araugintzaren azterketa, ebaluazio eta ikerketa eskumena.*
- C *Lege erreformak egiteko proposamenak lantzea, bi sexuen arteko berdintasun egiazkoa eta eraginkorra zailtzen edo eragozten duten trabak kentzeko, baita 4/2005 Legea garatzeko araudia proposatzea ere.*
- D *Erkidegoko administrazioak arauak egiteko sustatzen duen prozeduraren barruan txostenak zabaltzea, eta 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan xedatutakoa behar bezala aplikatzen dela egiaztatuta, eta, hala badagokio, hobetzeko proposamenak egitea.*
- E *Gobernuko sailek, foru aldundiek eta tokiko erakundeek emakume-gizonen berdintasunerako dauzkaten planak Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi bakoitzean onartu behar duen plan orokorrean aurreikusitako interbentzio ildoetara eta jarraibideetara egokitzeari buruz txostenak zabaltzea.*
- F *Esparru politiko guztietan generoko ikuspegia sartzeko metodoak prestatzea eta bultzatzea, eta, bereziki, jarraibideak proposatzea generoaren arabera eraginaren alde aurreko ebaluazioa egiteko eta administrazio araudian zein jardueran emakume-gizonen arteko berdintasuna sustatu eta desberdintasunak desagerrarazteko neurriak sartzea.*
- G *Emakumeen eta gizonen berdintasun esparruan eskumena duten erakunde, organoetako eta unitateetako langileen eginkizunari eta trebakuntzari dagokionez, bete beharrezko gutxieneko baldintza oinarritzko eta komunak proposamena egitea EAEko herri administrazioetako organo eskudunei.*

1 Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko 2/1998 Legearen 3. artikulua aldatzen duen Azken Xedapenetako Lehenengoaren bidez



- H** *Jarduerei, aholkularitzari eta EAEko herri botereekiko lankidetzari bultzada ematea emakume-gizonen berdintasun alorrean eta, bereziki, emakume-gizonen berdintasunerako prestakuntza planen diseinuan, emakumeen aurkako indarkeria kasuetan esku hartzeari lotutakoak barne.*
- I** *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail Arteko Batzordearen eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearen Arteko Batzordearen zereginak bultzatzea eta koordinatzea, baita autonomia erkidegoko botere publikoen arteko beharrezko koordinaziorako neurriak bultzatzea ere, emakumeen egoeran eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eragina duten programei dagokienez.*
- J** *Emakumeen eta gizonen baldintza, behar eta interes desberdinak aztertzea, baita bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean haietatik eratorritako desberdintasunak ere, bereziki jarduera esparru guztietan gauzatu beharreko politika zehazteko ikerketak egitea sustatuz.*
- K** *Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Plana prestatzea, proposatzea, eta ebaluatzea, Eusko Jaurlaritzak onar dezan.*
- L** *Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan dauden zerbitzuen eta programen eraginkortasunaren eta norainokoaren ebaluazioa.*
- M** *Aholkularitza eta laguntzarako zein sustapenerako bestelako neurriak ezartzea, enpresak eta erakundeak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko planak, programak eta jarduerak garatzeko bitarteko materialez, ekonomikoez eta pertsonalez hornitzeko.*
- N** *Emakume eta gizonen arteko berdintasun esparruan zerbitzuak emateko erakundeen homologazioan erabil daitezkeen gutxieneko betebeharrak eta baldintza komun zein oinarritzaren gaineko eskumena duen organoarentzako proposamena.*
- Ñ** *Diskriminazio anitza jasaten duten emakumeek oinarritzako gizarte-zerbitzuak izatea ziurtatzen duten zerbitzuak proposatzea eta bultzatzea.*
- O** *Emakumeen eta gizonen bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa bateragarri izan daitezen bultzatuko duten gizarte zerbitzuak eskaini eta egokitzearen arloan neurriak bultzatzea eta proposatzea.*
- P** *Herritarrak sentsibilizatzea, eta horretarako egokitzat jotzen diren sentsibilizazio, sustapen eta hedapen jarduerak eta kanpainak egitea, bai emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esanahiaz eta garrantziaz, bai hura lortzearen eta emakumeen jabetasunaren alde lan egiteko beharraz.*

1.2. emakunde / emakumearen euskal erakundearen 20. urteurrena

Urte berezia izan da 2008 Emakunderentzat. Hogei urte bete ditu erakundeak eta, urteurrena ospatzeko, 1988an sortu zenetik emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunaren alorrean egindako aurrerapenak eta lorpenak gizarteari erakutsi nahi izan dizkio. Emakundek helburu garbia izan du sortu zenetik: emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuna lortzea bizitzako arlo guztietan, berdintasun hori lortzeko bideak irekitzea eta emakumeek jasaten duten edozein motatako bazterkeria deuseztatzeko neurriak hartzea. Ideia horiei segika egin du Emakundek bidea urte hauetan guztietan. Urte hauetan ezinezkoak ziruditen helburuak erdietsi dira, eta egoera, egitura eta jarrera asko aldatu eta itzulezin bihurtu dira.

Erakundea Sortzeko Legea onartu zen egunaren hogeigarren urteurrenean, 2008ko otsailaren 5ean, ekitaldi bat egin zen Lehendakartzaren egoitzan, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria buru zela. Berrehun lagun inguru bildu ziren; horien artean erakundearen iraganeko eta oraingo protagonistak. Lehenengo lerroan eserita, lehendakaria, Emakundeko oraingo zuzendaria eta idazkari nagusia Izaskun Moyua eta Miren Arantza Madariaga, lehengo zuzendaria eta idazkari nagusia Txaro Arteaga eta Itziar Fernández, eta Emakunde sortutakoan lehendakaria zen Jose Antonio



Jose Antonio Ardanza, Itziar Fernández, Miren Arantza Madariaga, Txaro Arteaga, Izaskun Moyua eta Juan José Ibarretxe lehendakaria Emakunderen 20. urteurreneko ekitaldian.



Lehendakaritzan antolatutako 20. urteurrenaren ekitaldiaren aurkezpenean.

Ardantza egon ziren. Emakunderen hogei urteren erreposoa egiteko eta etorkizunera finkatutako erronkak iragartzeko balio izan zuen ekitaldiak.

Emakunderen hogeigarren urteurrena ez da hedabideentzat oharkabean igaro. Gizarteari erakundeak hogei urte hauetako une gogoangarriak erakutsi dizkiete hedabideek hainbat erreportajeren bidez. Errepaso historikoak egin dituzte, Emakundeko zuzendaria elkarrizketatu dute, iritzi artikulua argitaratu dira eta erakundeak publizitatea ere egin du. Hori horrela, esanguratsua da telebistan eta irratian egingako kanpaina. ETBren bi kateetan eta EITB taldeko irratiaren hedatu zen kanpaina «Zirimiriz umeldutako hogei urte» lelopean, EITBekin sinatutako hitzarmen baten bidez. Gure gizarteko hainbat alorretako hogei emakumek hartu zuten parte kanpainan: politika, ekonomia, literatura, artea, kirola, epailetza, hedabide, mugimendu feminista eta beste hainbat arlotako emakumeek hain zuzen. «Zirimiriz umeldutako hogei urte» kanpainaren leloaren izen bereko liburua argitaratu zuen Emakundek hogeitantaren laburpena, erakundearen lan egiteko modua, islatuz.

Erakundeak 2008an erabili dituen paper gai guztietan ilargira harrapatzeko be-soa altxatuta duen neskatala baten irudia erabili dugu. Hori izan da Emakunderen hogeitantaren irudia. Irudi horren bidez erakutsi nahi izan da noizbait urrunekoak zirudien helburua lortzeko urratsez urrats egin behar dela aurrera, hogeitante Emakundek egin duen bezala. Lortu ezin zirela ziruditen hainbat ilargi lortu dira urteotan eta lortu dugun bakoitzeko etorkizunerako helburu berriak finkatu ditu erakundeak. Horregatik, lan egitea merezi izan du. Horixe izan da bi hamarkada hauetako Emakunderen ezaugarri nagusietako bat. Emakunderen bereizgarria da.



1988an Emakunde sortu zenean gure erakundeek berdintasun politikak diseinatzeari eta sustatzeari arduratuko zen erakunde baten aldeko apustua egin zuten eta, orduetik, berdintasunerantz daramaten bide asko urratu dira. Hogei urteotan, erakundeak saiatu da herri administrazioetan berdintasunaren alde lan egiten duten egiturak indartzeko, administrazioen artean lanerako sareak sortzeko eta emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunaren alde lan egiten duten alor pribatuen hedapena sustatzeko. Emakunderi beti iruditu zaio garrantzitsua sareak sortzea emakumeen, elkarteen, erakundeen eta herrialdeen artean, egiturak sortzea eta indartzea eta gure gizartearen berdintasun politikak sustatzeko gai izango diren pertsonak trebatzea. Ekintza Positiboen Planak erabili dituzte euskal botere publikoek legealdi guztietan berdintasun gaietan orientatzeko tresna gisa. Ildo horri jarraituz eta gogoz saiatuta prestatu zuen Emakunde Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea, ondoren 2005ean Legebiltzarrak onartu zuena. Lege hori urrats handia izan da protagonistatzat herritarra, herritar beregain eta askea, duen gizarte egoera berria sortzeko.

Urteotan urrats handiak eman dira berdintasuna lortzeko, lau ardatz estrategikotan oinarrituta. Ardatz horiek gidatu dute erakundearen lana: mainstreaminga; emakumeek boterea izatea eta gizartearen zein politikan parte hartzea; erantzunkidetasuna eta kontziliazioa; eta emakumeen aurkako indarkeria.

Erakundearen jardura gogoangarrienen artean honakoak daude: Aholkularitza Batzordea sortzea, emakumeen elkartearen eta Emakunderen arteko komunikazioa errazteko; Aukera Berdintasunaren Erakunde Laguntzailea sortzea, berdintasunarekin konpromisoa hartzen duten enpresen eta erakundeen lanari errekonozimendua eskaintzeko; etxeko tratatu txarren eta sexu eraso biktima diren emakumeei arreta hobea eskaintzeko erakundearen arteko akordioa sinatzea EAEko agintari gorenaren eskutik, etxeko tratatu txarren eta sexu eraso biktimei arreta hobea eskaintzeko helburuarekin; indarkeriaren prebentziorako Nahiko eskola programa sor-



20. urteurrenagatik egindako telebistarako iragarkia-iragarkien fotogramak.



20. urteurrenagatik sortutako logoa-irudia.




tzea; Berdinsarea, berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako EAEko udalerrien sarea sortzea. EAEko emakumeak zein egoeratan bizi diren jakiteko ikerketa eta txosten ugari argitaratzea; Berdintasuna lortzeko borrokan gizonak ere parte har dezaten Gizonduz programa abian jartzea, eta abar. Ekintza horiez guztiez gain, urtero martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Egunaren eta azaroak 25 Emakumeen aurkako Indarkeriaren aurkako Egunaren harira sentsibilizazio kanpainak ere egin dira.

Emakunderentzat garrantzitsua da lorpenen erreposoa egitea, baina are garrantzitsuagoa da etorkizunari begiratzea. Etorkizuna, zerbait izatekotan, gure ametsak egia bihurtzeko aukera bat da. Eta Emakunde amets asko ditu oraindik; oso amets ederrak, oraindik lortu ez dituen ilargiak.

2. zuzendaritza kontseilua

Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluaren osaketa



- Lehendakaria
- Emakundeko zuzendaria
- Emakundeko idazkari nagusia
- Eusko Jaurlaritzako sailak (6 kide)
- Foru Aldundiak (3 kide)
- Udalak (3 kide)
- Eusko Legebiltzarrak zuzenean izendatuta (6 kide)
- Eusko Legebiltzarreko Emakumeen eta Gazteen Batzordea
- Aholku-batzordeko ordezkaria



Erakundearen Zuzendaritza Kontseiluak 2008ko apirilaren 16an egindako lehenengo ohiko bileran honako proiektuak eta erabakiak jorratu zituen:

- Emakunderen 2007ko ekintzen memoria.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen 2008rako jarduteko plana.
- Emakumeen elkarte eta fundazioei diru-laguntzak ematea arautzen duen ebazpena.
- 2008an EAEko udalerriei, koadrilei eta mankomunitateei emakumeen eta gizonen arteko berdintasun diagnostikoak eta/edo planak egin eta egokitzeko beharrezko laguntza teknikoa ematera bideraturiko diru-laguntzak ematea arautzen duen ebazpena.
- Ikerketa proiektuei eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan ekintza pilotuei diru-laguntzak ematea eta berdintasun politikaren inguruko ikerketa edo/eta ekintza pilotuak argitaratzeko diru-laguntzak ematea arautzen duen ebazpena.
- Enpresa eta erakundeek 2008rako gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruko diagnostia eta berdintasun plana egiteko aholkularitza enpresa homologatua kontratatzeke diru-laguntzak emateko deialdia arautzen duen ebazpena.
- 2008rako berdintasunaren aldeko Emakunde Sariaren deialdia egiteko ebazpena.


2008ko irailaren 10ean bildu zen Kontseilua bigarren ohiko bilera egiteko eta honako gaiak jorratu zituzten:



• **Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko txostena (2007. urtea)**

Euskal Autonomia Erkidegoan, EAEn, 2.155.546 pertsona bizi dira guztira. Horietatik erdiak baino gehiago (% 51,1) emakumezkoak dira, eta, adinekoen artean ere, gehienak emakumezkoak dira.

Emakumezkoen bizi itzaropena 85,6 urtekoa da, eta gizonena, berriz, 78,3koa. Aipagarria da, ezgaitasunik gabeko bizi itzaropena urte gutxiagokoa dela: emakumezkoen kasuan 75,2 urte eta gizonen kasuan 69,7. EAEnko bizi itzaropena 80,8 urtekoa zen 2005ean, estatukoa (80,2) baino altuagoa, eta esta-




Azken urteotan asko aldatu den eta jaiotza tasan eragin handia duen ezaugarria amek seme-alabak jaiotakoan duten adina da. 1976tik 2006ra ama izateko batez besteko adinaren bilakaerak 2,4 urteko gorakada izan du estatuan. Azken 30 urteotan EAEn lau urteko gorakada izan du batez besteko adin horrek eta, 2006ko datuen arabera, batez besteko altuena duen (32,3 urte) autonomia erkidegoa da. Europar Batasuneko estatuetan ama izateko batez besteko adina 30,9 urtetik (Espainia) 26 urterakoa (Bulgaria) da. Labur esanda, Espainia da batez besteko altuena duen herrialdea eta, estatu mailan altuena EAEk duenez, euskal emakumeak ama izateko batez besteko adina Europako altuena dela esan daiteke.

2006/07 ikasturtean 438.745 pertsona ziren EAEko hezkuntza maila eta zentro guztietan matrikulatuta zeuden pertsonak. Horietatik % 51,1 emakumezkoak ziren eta % 48,9 gizonezkoak. Irakaskuntzako maila eta mota bakoitzean sexua-ren arabera sailkatzen baditugu ikasleak, unibertsitatetik kanpoko ikasketetan gizonezkoen proportzioa emakumezkoena baino zertxobait handiagoa edo askoz handiagoa zen; erdi mailako lanbide heziketan gizonezkoak % 60,3 ziren, goi mailakoan % 56,8 eta zereginen ikaskuntzan % 61,3. Bestalde, emakumezkoen proportzioa askoz altuagoa da unibertsitateko ikasketetan (% 54,3) eta araubide bereziko irakaskuntzetan (% 67,6).

Batxilergoko aukeretan sexuen arabeko aldeak nahiko nabarmenak dira. Aurreko urteetako joerari jarraituz, giza zientzien batxilergoan matrikulatutako ikasleen % 78,5 emakumezkoak dira eta zientifiko-teknikoan matrikulatutakoak, berriz, % 35,4 bakarrik dira. Era berean, osasun zientzietako eta artearen batxilergoan, hamar ikasletik zazpi neskak dira.

Batxilergoko aukerak

	guztira	emakumeak
Arteak	192	71%
Osasun zientziak	2.471	72%
Gizarte zientziak	2.709	67%
Zientifiko-teknikoa	3.260	35%
Giza zientziak	741	79%
Guztira	9.373	58%



eskola uztearen zerrenda buruan, atzetik Espainia % 29,9ko ehunekoarekin dutela. Sexuaren arabera sailkatutako datuei begiratzen badiegu ikusten da herrialde guztietan emakumeei dagozkien tasak gizonaenak baino baxuagoak direla. EAEn eskola uzten duten emakumezkoen tasa % 8,6koa da, Europar Batasunak 2010erako aurreikusitako baino baxuagoa. Gizonezkoak, aldiz, aurreikuspen horretatik urrutiago daude, eskola uzten duten gizonezkoen tasa emakumezkoenaren bikoitza baino altuagoa baita, % 20,4koa, hain zuzen. Autonomia erkidegoei dagokienez, EAE eta Nafarroan dituzte eskola uzten dutenen tasa baxuenak, % 14,5 eta % 13, hurrenez hurren, biak estatuko batez bestekoaren oso azpitik.


2006/2007 ikasturtean, EAeko unibertsitateetan matrikulatutako ikasleak 63.691 ziren guztira. Horietatik erdia baino zerbait gehiago (34.643) emakumeak ziren; alegia, % 54,4. Aurreko ikasturteetan bezala, oraingoan ere matrikulatutako % 75 baino gehiago emakumezkoak edo gizonezkoak diren unibertsitateko titulazioen zerrendak egin dira. Lehenengo kasuan, Erizaintza dago zerrendaren lehenengo postuan; ikasleen % 87,5 emakumezkoak dira. Giza elikadura eta dietetika dago zerrendako bigarren postuan, ikasleen % 87,1 emakumezkoak direlarik. Aurreko urteetan bezala, zerrenda horretan sartzen dira batez ere, osasunaren alor orokorreko ikasketak (lehen aipatutako bi ikasketez gain, Elikagaien zientzia eta teknologia, Farmazia, Odontologia, Psikologia eta Medikuntza daude) eta hezkuntzaren arlokoak (Pedagogia, Psikopedagogia, Gizarte hezkuntza eta Magisteritza, besteak beste).




Hasteko, lana duten emakumezkoek sektore ekonomiko ezberdinetan duten presentzia desorekatua da. Emakumezkoen % 87,5ek zerbitzuetan egiten du lan. Bigarrenik, emakumezkoek egonkortasun gutxiago dute lanean. Gainera, lan egiten duten gizonen % 80k lan kontratu mugagabea dute baina emakumezkoek dagokienez, % 70ek dute lan kontratu mugagabea. Era berean, ez kontratu mugagaberik, ez aldi baterako kontraturik ez duten emakumezkoak % 6,2 dira. Gizonezkoen % 0,2ri soilik eragiten die fenomeno horrek.

Hirugarrenik, datuek berriro erakusten dute emakumezkoak lanaldi partzialerako kontratatzeko joerak gora egin duela. Lan egiten duten emakumezkoen % 28k lanaldi partziala dute. Gizonezkoen kasuan, tasa hori % 4,2koa da. Laugarrenik, laneako egoeraren arabera gizon eta emakumezkoen arteko banaketa desorekatua da hiru talde garrantzitsutan; enplegatzaileak, autonomoak eta sektore publikoan lan egiten dutenak. Enplegatzaileen % 73,5 gizonezkoak dira, lan egiten duten gizonen % 3,6 alegia. Emakumeen kasuan, % 1,8 bakarrik dira enplegatzaileak. Era berean autonomoen % 80 gizonezkoak dira, lan egiten duten gizonen % 14,3 alegia. Emakumeen kasuan, % 8,4 bakarrik dira autonomoak. Sektore publikoan lan egiten duten pertsonen ia % 60 emakumezkoak dira, lan egiten duten emakume guztien ia % 20. Gizonen kasuan, % 10ekoa da proportzioa. Amaitzeko, gizonezkoek eta emakumezkoek jasotzen dituzten soldaten artean aldeak nabarmenak dira. 2006ko datuen arabera, 6.233,07 eurokoa da emakumezkoen eta gizonen soldaten arteko urteko batez besteko aldea.

Erreprodukzio eta produkzio lanaren arteko ezberdintasunak pertsonen independentzia ekonomikoari eragiten die. Hala, lanaldiak aldi batekoak edo partzialak izateak, zerbitzuen sektorean lan egiteak eta merkatuan lan egoera jakin bat izateak






dakar gizonezkoek emakumezkoek baino % 40 gehiago irabaztea, sexuaren arabera sailkatutako lan egiten duten pertsonen soldatak kontuan hartuta. Langileen urteko batez besteko soldata 23.859 eurokoa da, eta lan egiten duten emakumezkoena, berriz, 16.833 eurokoa. Gizonezko langileek emakumezkoek baino gehiago irabazten dute lanbide guztietan. Horrela, zuzendari gerente gizonezkoek urtean batez beste 37.299 euro irabazten dituzte soldatetan eta postu horretan lan egiten duten emakumezkoek, berriz, 21.171 euro jasotzen dituzte.


EAEko herritarrek, oro har, ikuspegi positiboa daukate euren osasunari buruz. Horri dagokionez, ez dago alde handirik emakumeen eta gizonen artean. Azken urteetako joerak erakusten du gero eta ikuspegi positiboagoa daukatela, nahiz eta, adinean aurrera egin ahala, ikuspegia okertu egiten den.

Txosteneko datuek gehien agertzen diren gaixotasunei, ospitalean igarotzen den denborari, osasun zerbitzuen erabilerari eta antzekoei dagokienez, aurreko urteetako joera berdinak erakusten dituzte. Emakumezkoek bakarrik eragiten dieten hainbat gaixotasun prebenitzaeri buruzko joerak ere ikus daitezke; hala nola, azterketa ginekologikoak, baginako zitologiak eta mamografiak. Datu horien arabera, EAEko emakumeen % 85,15 joan dira noizbait ginekologoarengana. EAEko emakumezkoen % 75,3ri noizbait egin die zitologia bat. Estatuan, zitologia egin dieten emakumezkoen batez bestekoa % 69koa da. Azkenik, EAEko emakumeen erdiei baino gehiagori, % 57ri, egin die noizbait mamografia bat. Mamografiari dagokienez, autonomien rankinean hirugarren postuan daude EAEko emakumezkoak, eta estatuko batez bestekoaren bost puntu gaitetik daude. Mamografia egiteko arrazoen artean adierazlerik esanguratsuena



erakundeek egiten dituzten kanpainak dira. Horiei esker egiten dira EAEko mamografiak % 50,27. Estatu mailan % 36,3 bakarrik egiten dira kanpainak bultzatuta. Horrela, Osakidetza bularreko minbiziaren garaiz detektatzeko programaren partaidetza egonkorra izan da azken urteotan.

Beste autonomia erkidego batzuetako joerari jarraituz, EAEn haurdunaldia borondatez eten dutenen tasa ia bikoiztu egin da azken hamar urteotan: 1995ean % 2,55koa izan zen tasa eta, 2006an, % 6koa. 2006koak dira eskura ditugun daturik berrienak. Dena den, autonomia erkidegoetan haurdunaldia borondatez eteten dutenen tasa txikiena du EAEk. 2006an, 2.978 pertsonak eten zuten haurdunaldia beren borondatez, EAEko erregistroaren arabera. Horietatik % 16,9 beste autonomia erkidego batzuetan bizi diren emakumeei egin zitzaizkien, batez ere EAEn inguruko erkidegoetako. EAEko zentroetan edota beste autonomia erkidego batzuetan haurdunaldia borondatez eten zuten EAEko emakumeak 2.586 izan ziren. Haurdunaldia borondatez eteteko arrazoia osasun fisikoarentzat edo psikikoarentzat haurdunaldi horrek arriskua zekarrela izan zen (kasuen % 93,7). EAEn haurdunaldia borondatez eten zutenen tasa handiena (10,9) 20tik 24rako adin tartean izan zen, estatuan bezala. Adin horretatik aurrera, tasa beherantz doa 1,5eko tasara iritsi arte. Zenbaki hori berrogei urte baino gehiagoko emakumeei dagokie. Hurrei eta nerabeei eginiko HBEei buruzko datuak ere barne hartzen dituzte estatistikek. 2006an hamabost urtetik beherako bost neskari eten zitzaien haurdunaldia EAEn. Hamabost eta hemeretzi urteko gazteei egindako mota honetako interbentzioaren kopurua askoz ere handiagoa da: 278, guztira. Oro har, hemeretzi urtetik beherako emakumezkoen haurdunaldiak borondatez etetearen tasak etengabe igo dira EAEn azken urteotan.



2007an 4.205 salaketa edo atestatu jarri ziren EAEn emakumeen aurkako indarkeriagatik eta tratu txarreatatik, 3.356 emakumeren ingurukoak. Kasuen % 75,5ean, biktimaren bikotea izaten da erasotzailea.

2007an hiru emakume hil ziren EAEn indarkeriaren edo tratu txarren ondorioz; hamasei oso larri zaurituta egon ziren eta 1.192k zauri arinak izan zituzten. Salaketa gehienak (% 57) EAEn jaiotako emakumeek jarri zituzten; ondoren, Estatuko gainerako tokietatik etorritakoak (% 15,8) eta azkenik jatorri amerikarrekoak (% 18,4). Biktima gehienak emakume gazteak edo helduak izaten dira. Hala, 32 urte baino gutxiagoko emakumeak ziren salatzaileen % 43,5, 33 eta 59 urte artekoak % 49,6, eta hortik gorakoak % 6,5.

Sexu askatasunaren aurkako delituei dagokienez, Herrizaingo Sailaren datuek erakusten dute 2007an 275 salaketa jarri zirela sexu eraso eta gehiegikerien-gatik. Erregistratutako kasuen biktima gehienak emakume gazteak izan ziren; Hain zuzen ere, 32 urte baino gutxiagoko emakumeek jarri zituzten salaketen % 73,4. Oraingoan ere ikusi da EAEn jaiotako emakumezkoak direla mota honetako erasoak jasateagatik salaketa gehien jartzen dituztenak. Salaketen % 62 jarri dituzte EAEn jaiotako emakumezkoak.




Administrazioek berdintasun politiken inguruan dituzten joerei erreparatuta, honakoa ikusi dugu azken bi urteotan:

- 2006an eta 2007an administrazioentzat lehentasun handieneko bi **jarduera ardatzak** mainstreaming eta ahalduntzea eta politikan partaidetza izan dira, informazio guztiaren hiru laurden biltzen dituzten heinean. Bi ardatz horien inguruan 2007an egin den ekintza kopurua handitu egin da (% 39,7 eta % 28,4 gehiago, hurrenez hurren).
- 2006 eta 2007 botere publikoek egindako jarduerak ardatz izan ziren, honakoak lortzeko helburuak, alegia: erakundeari genero ikuspegia integratzeko ahalmena ematea; gizartean berdintasun politikekiko interesa eta inplikazioa zabaltzea; kultur arloan genero ikuspegia integratzea; emakumeen ahalduntzea dakarten ekintzak egitea, bereziki baztertuak izateko arriskuan daudenen edo era askotako bazterkeria jasaten dutenen edo emakumeen elkarteen ahalduntzea dakartenak; emakumezkoak gizonen baldintza beretan lan munduratzeko laguntzea; emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea; eta tratu txarren eta sexu eraso biktima diren emakumeei arreta eskaintzeko baliabideak hobetzea.
- Nabarmetzeko modukoa da kontziliazio eta korrespondentzia ardatzak izandako gorakada. 2007an egindako jarduera guztien % 6,1 dira ardatz horretakoak, 2006an egin zirenak baino % 50 gehiago. Botere publikoen lehentasuna zaintzaren erantzunkidetasunaren eta etikaren kultura sustatzen dituzten jarduerak egitean datza; laguntza zerbitzuak eta langile bizitza, familia bizitza eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriak hartzea da lehentasuna; baita autonomia funtzionalik ez duten pertsonen arreta eskaintzeko baliabide sozio-komunitarioak izatea ere.
- Indarkeriaren ardatzari dagokionez ere, jarduerak % 27,7 igo dira. Esku-hartze programa garrantzitsu bihurtu da eskolan indarkeriaren aurrean arreta eta bitartekaritza eskaintzea. Aurreko urteetan tratu txarren eta sexu eraso biktima diren emakumeei arreta eskaintzeko baliabideak hobetzera zuzendu dira jarduera gehienak. Orain, berriz, jarduera ildo horiei eutsi zaien arren, erakunde publikoak prebentzioari lehentasuna ematen hasi dira, eskoletan esku hartuz. Nahiko programa da ildo horren erakusgarri.
- **Esku-hartze arloan** azterketak erakusten du gauzatze maila handiena duten bi esku-hartze arloak (kopuru handia eta jardueretan aniztasuna, programei eta helburuei dagokienez) kultura eta gizartean sartzea direla. Arlo horietan hainbat modutan ari gara lanean. Generoaren ikuspuntua erakundeetan sartzen saiatuz, zein emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako sektore politikak eta zeharkako politikak sustatuz.


Emaitzen azterketa globala 2007

Ardatz bakoitzean burututako jarduerak




Emaitzen azterketa globala 2007

Arlo bakoitzean burututako jarduerak




Eraitzen azterketa globala 2007

Erabilitako tresnak



2007

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun plana duten udalerrien biztanleriaren portzentajea





3.1.1. Aholkularitza eta laguntza berdintasunerako planen eraketan, baita horien garapenean eta segimenduan ere

Ekintza hori administrazioen ezaugarriak kontutan izanda moldatutako prozesu bereizien bitartez egiten da:

Administrazio Orokorra

Batez ere, Sail Arteko Batzordearen Talde Teknikoaren bidez egiten da lan, saileko batzordea arautzen duen dekretuak ezartzen duen bezala. Horrela, dekretuak aurreikusitako taldeko bileretan eta beste aldebiko bilera batzuetan laguntza eskaintzen zaie sail bakoitzari dagozkion sektoreko politikak aztertzen, berdintasuna sustatzen duten helburuak identifikatuz, jarduteko estrategiak finkatuz eta sail bakoitzeko eta gobernu osoko berdintasun politiken plangintza eta segimendua egiteko. Ildo horri jarraituz eta legealdi osoan zehar, Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomoei ere laguntza eta aholkularitza eskaini die, batez ere, materialak berrikusteko eta prestatzeko proiektu konkretuetan, baita generoaren ikuspegia sartzeko sektorekako ekintza berritzaileak martxan jartzen ere. Era berean, berdintasun politiken plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa hobetzeko proposamenak ere egin dira.

Hona hemen 2008an egindako ekintza zehatzak:

- Gobernuaren 2007ko [segimendu txostena](#) egin eta sail arteko batzordean aurkeztu da.
- [Sail arteko batzordearen talde teknikoari aholkularitza eskaini zaio](#) 2008ko dokumentu-programak eta horien segimendu txostenak egiteko. Batera egindako bi bilera eta hamaika aldebiko bilera egin dira horretarako.
- [Programa dokumentuen aurrekontuak egiteko irizpideen proposamena](#) egin da IV. plana garatzen ari diren sailentzat.
- [Berdintasunerako jardunbide egokien bankua diseinatu da](#). Jardunbide egokiak kontuan hartzeko irizpideak finkatu dira, 2008an egindako jarduera esanguratsuak jaso dira eta datu base batean antolatu dira. 2009an jarriko da datu base hori sailen eskura.

Toki administrazioa

Udalekin batez ere bi ildo nagusitan jarraitu dugu elkarlanean:

A Berdinsarea-Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko Euskal Herriko udalerrien sarea

Sare hori Emakunderen bultzadarekin sortu zen, eta 2005ean Eudelekin (Euskadiko Udalen Elkarte) sinatutako hitzarmenaren ondorioz jarri zen abian; hitzarmen horretan Emakundek (Emakumearen Euskal Erakundea) konpromisoa hartu zuen berdintasunerako sarea dinamizatuko duen eragilea kontratatzea batera finantzatzeko, eta Eudelek sare hori sortu, kudeatu eta sarearen garapenerako beharrezkoa zena egiteko. Honako organoen bidez funtzionatzen du sareak: Euskadiko Udalen Elkarte/Eudeleko eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko ordezkariak osatuko duten segimendu batzordea; batzordea hitzarmenaren segimendua egiteaz, Sarearen jarduna gidatuko duten jarraibideak ezartzeaz eta lan plangintza egiterako orduan jarraibidearen lehen-tasunak zeintzuk diren zehazteaz arduratuko da, Jaurlaritzaren politikekin eta gainerako erakundeekin koherentzia eta koordinazioa bilatzeko asmoz; Osoko Bilerak, sarearen gobernu organoa, sarean dauden udalerrri guztietako hautetsi lokalek osatutakoa, eta Batzorde Teknikoa, udalerrri bakoitzak hautatutako berdintasunerako teknikariek, sarearen idazkaritza teknikoko arduradun teknikoak eta Emakundeko (Emakumearen Euskal Erakundeko) teknikari batek osatutakoa. Legealdi honetan sarearen lana bultzatzen eta sendotzen ari gara, eta

Emakundek bere zereginak hobeto betetze ditzan laguntzen duten ekintzak berariaz sustatzen.

Hona hemen 2008an egindako ekintza zehatzak:

- Berdinsarearen (Indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko Euskal Herriko udalerrien sarea) mantentze lanak egiteko Eudelekin sinatutako hitzarmena luzatzea.
- Eudelekin batera Berdintasunerako tokiko planen diseinua, kudeaketa eta ebaluazioa egiteko gidaren 1.000 ale argitaratu dira.



B Udalei eta tokiko erakundeei diru-laguntzak emateko deialdia udaletan diagnostikoak eta/edo planak egin ditzaten

Tokiko erakundeei diru-laguntzak emateko deialdia diagnosiak egin ahal izan ditzaten udalerrietako emakume eta gizonen egoerari buruz, eta Jaurlaritzak ezarritako jarraibide orokorrekin bat eginez tokiko planak egin ahal izan ditzaten. Hori guztia, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari udalerriei laguntza teknikoak ematen uzten dio, bere eskumenen esparruan. Legealdi honetan helburu horretara bideratutako zenbateko ekonomikoa 500.000 eurora igo da udalerrri eta tokiko erakunde gehiagotara iristeko, eta estrategiak garatu dira berdintasun politikan ibilbide laburragoa duten udalerrri txikiagoek laguntza horiek jaso eta prozesu sistematikoa hasteko aukera izan dezaten.

2008an 42 proiektu lagundu dira diruz. Berdintasunaren gaian oraindik bide laburra egin duten udalerrietan tokiko politikak indartzeko helburua bete dugu; izan ere, 30 udalek ekingo baitie lehenengo aldiz berdintasun diagnostiko eta/edo plan bat egiteko lanei. Horietako batzuk bakarka eta beste batzuk elkarlanean egingo dute lan hori. Gainerako proiektuak lehendik egindako diagnostikoak eta sektoreko planak berrargitaratzeko edo sakontzeko izan dira.

UDALERRI, KOADRILA ETA MANKOMUNITATE ONURADUNEN ZERRENDA

GUZTIRA: 495.112,94 euro

ERAKUNDE ONURADUNA	DIRU LAGUNTZA JASOTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA
Amurrioko Udala	Emakumezkoen eta gizonezkoen egoeraren gaineko diagnostikoa Amurrian	9.000,00 €
Laudioko Udala	Tratu txarren biktima diren emakumeei arreta eskaintzeari buruz diagnostikoa eta ondoren udal protokoloa egitea.	8.700,00 €
Aiarako Koadrila	Aiarako Koadrilarako lehen berdintasun plana	13.920,00 €
Abadiñoako Udala	Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta eskaintzeko udal politiken egoeraren diagnostikoa	4.727,15 €
Abadiñoako Udala	Abadiñon berdintasunerako II. udal plana egitea	13.921,15 €
Abantoko Udala	Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta hobea eskaintzeko tokiko protokoloa egiteko diagnostikoa	4.500,00 €
Arrigorriagako Udala	Arrigorriagan 2006-2008 aldirako emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako lehen udal planaren ebaluazioa eta 2009-2012 aldirako II. planaren diagnostikoa eta plana egitea	12.375,00 €
Arrigorriagako Udala	Arrigorriagan hiri diagnostikoa egiteko proposamena	14.823,98 €

ERAKUNDE ONURADUNA	DIRU LAGUNTZA JASOTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA
Basauriko Udala	Mendetasun egoeran dauden pertsonen zaintzari buruzko diagnostikoa	7.673,40 €
Bermeoko Udala	Bermeoko Udalean emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako diagnostikoa egitea	13.920,00 €
Bilboko Udala	Emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako III. berdintasunerako udal plana egitea	20.000,00 €
Durangoko Udala	Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta eskaintzeko udal politiken egoeraren diagnostikoa	4.188,83 €
Durangoko Udala	Durangon emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako plana egitea	18.006,34 €
Elorrioko Udala	Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta eskaintzeko udal politiken egoeraren diagnostikoa	3.290,03 €
Erandioko Udala	Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta eskaintzeari buruzko diagnostikoa	5.220,00 €
Ermuko Udala	Ermuan berdintasunari buruzko diagnostikoa egitea	10.834,11 €
Getxoko Udala	Getxon mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko diagnostikoa egitea	6.000,00 €
Gordexolako Udala	Gordexolako Udalean ekintza positiborako I. udal planaren ebaluazioa eta emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako II. planaren prestaketa	8.700,00 €
Gueñeseko Udala	Gueñeseko Udalean ekintza positiborako lehen udal planaren ebaluazioa eta emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako bigarren planaren prestaketa	13.050,00 €
Lekeitioko Udala	Lekeition generoaren ikuspuntutik egindako hiri diagnostikoa	13.275,00 €
Mendatako Udala	Busturialdeko herri txikietako emakume eta gizonen berdintasun plana	30.000,00 €
Mungiako Udala	Gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen diagnosia	12.906,45 €
Ondarroako Udala:	Ondarroako Emakume eta gizonen berdintasunerako III. udal plana egitea	11.960,00 €
Urduñako Udala	Urduñako emakumezkoen eta gizonezkoen aukera berdintasunerako lehen plana	9.750,00 €
Orozkoko Udala	Orozkoko emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako diagnostikoa eta plana	9.000,00 €
Santurtziko Udala	Emakumezkoak seguru sentitzen ez diren udalerriko tokiak identifikatzeko diagnostikoa. Herritarrek parte hartu dute diagnostikoan	7.830,00 €



ERAKUNDE ONURADUNA	DIRU LAGUNTZA JASOTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA
Ugaoko Udala	Ugaon egoeraren ebaluazioa egin eta ondoren emakumezkoentzako ekintza positiborako bigarren udal plana egitea	3.000,00 €
Zaldibarko Udala	2001. urtean aurkeztutako emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako lehen planaren diagnostikoa egitea	10.440,00 €
Enkarterrietako udalerrien mankomunitatea	Diagnostikoak eta emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako lehen plan mankomunitatea egitea Artzentales, Galdames, Lanestosa, Karrantza, Turtzioz eta Sopuertan Enkarterri Mankomunitatearekin	30.000,00 €
Uribe Kostako Mankomunitatea	Uribe Kostan emakumeen aurkako indarkeriaren aurka egiteko, diagnostikoa, protokolo mankomunitatea eta udal protokoloa eta ekintza plan mankomunitatea egitea	23.544,00 €
Aretxabaletako Udala	Aretxabaletako Udalean emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako diagnostikoa eta lehen plana egitea	18.000,00 €
Azpeitiko Udala	Azpeitiko emakume eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa egitea	11.250,00 €
Bergarako Udala	Bergarako emakume eta gizonen egoera, posizioa, behar eta arazoak ezagutzeko diagnostikoa egitea	5.100,00 €
Eibarko Udala	Sektoreko diagnostikoa: protokoloa egin aurretik emakumeen aurkako indarkeriaren egoera aztertzea	4.785,00 €
Oiartzungo Udala	Oiartzungo emakumeen eta gizonen aukera berdintasun egoeraren diagnostikoa: Oiartzungo berdintasunerako ekimenaren lehenengo urratsa.	20.000,00 €
Orioko Udala	Diagnostikoa	6.000,00 €
Tolosako Udala	Tolosan emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako lehen plana egiteko proiektua	10.440,00 €
Usurbilgo Udala	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun diagnosia	11.550,00 €
Zarauzko Udala	Diagnosia egitea: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana egitea. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana egokitzea	20.000,00 €
Zumaiako Udala	Zumaian aukera berdintasunari dagokionez, emakumezkoen eta gizonezkoen egoeraren inguruko azterketa eta diagnostikoa egitea	20.000,00 €
Bideberri mankomunitatea	Diagnostikoa egitea	7.342,50 €
Saiaz Mankomunitatea	Diagnostikoa	6.090,00 €

3.1.2. Planen, programen edo sektoreko arauen inguruko aholkularitza, sailen artekoa eta erakundeen artekoa

Emakundek lehen erabilitako eta oraingo legealdian ere erabiltzen dituen jarraibideak egiteko eta berdintasunerako neurriak sustatzeko beste estrategietako bat da hau. Sailek dituzten beharren eta/edo egiten dituzten eskaeren arabera erabiltzen ditu jarraibide eta neurriok Emakundek. Bakoitzak bere aldetik edo politikak, planak, programak eta antzekoak martxan jartzeko sortzen diren kontseilu, batzorde eta/edo lantaldeen izenean egiten dituzte sailek aipatutako eskaerak.

2008an Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari aholkuak ematen aritu da Emakunde sail horrek diseinatzeko ari den hezkidetzarako planaren harira. Plana diseinatzeko 2007-2010 aldirako hezkuntza berritzeko programen barruko generoa eta berdintasuna ildo hartu du abiapuntutzat sailak.

Beste sailei dagokienez, 2008an honako organoekin lanean jarraitu dugu:

- Publizitateari buruzko Sailarteko Batzordea
- Erakunde arteko Familia Batzordea
- Osasun Planeko Erakunde arteko Batzordea
- Gizarteratzeko Sail arteko Batzordea
- Garapena eta Lankidetzaren Sustatzeko Funtza/FOCAD eta Eusko Jaurlaritzako Kooperazio Aholkularitza Kontseilua.
- Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua
- Droga Mendetasunen Aholku Kontseilua
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseilua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorकिन Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa.
- EGIF Programa Eragilearen Eusko Jaurlaritzako Segimendu Batzordea 2007-2013.
- FEDER Programa Eragilearen Eusko Jaurlaritzako Segimendu Batzordea 2007-2013.

////////////////////////////////////

- Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Planaren segimendu batzordea.
- 2007an hiru lurralde historikoetan izenpeturiko eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak bultzatu eta koordinaturiko *Genero indarkeriaren aurrean babes osoa emateko neurrien legea eta etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua eraginkorra izateko koordinazio protokoloen* segimendu batzordea.
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren Justizia Administrazioaren Behatokia.
- Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintzako Sailari atxikitakoa

Egitura Funtzen alorretik ere lan egiten da aukera berdintasunerako politikak sustatzeko estrategia honetan; Egitura Funtzen araudiak ezartzen du berdintasunerako erakundeek batzordeak integratu behar dituztela beraien programetan genero ikuspegia integratzea ziurtatzeko mekanismo gisa. Lehen bezala, orain ere, 2007-2013 aldirako, Emakundek elkarlanean jarraitzen du funtsak koordinatzen dituzten erakundeekin.

Europako Gizarte Funtza (EGIF)

Hala, Europako Gizarte Funtzaren (EGIF) programazioari dagokionez, programazio alditik Eusko Jaurkitzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzarekin egin du lan Emakundek, emakumeen eta gizonen berdintasunerako lan egiteko lehentasunezko eremuak hautatzeko lanetan, baita Europako Gizarte Funtzaren baterako finantzaketa lortzeko –Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko sailburuaren 2006ko urriaren 5eko aginduan araututakoa– proiektuen deialdian aurkeztutako proiektuak hautatzeko berdintasun irizpideak ezartzeko lanetan (Euskal Autonomia Erkidegoko 2007-2013ko Programa Operatiboan kokatuta dauden proiektuak) . Aurkeztutako proiektuak hautatzeko Batzordean ere parte hartu zuen Emakundek.

Horrez gain, programa eragilearen zirriborroei genero ikuspuntuaren inguruko hainbat ekarpen egin zitzaizkien, behin betiko dokumentua onartu zen arte. Horrez gain, legealdi honetan laguntza ekintzak diseinatzen ari gara Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzarekin batera, EGIFekin batera finantzatzeko ekintzak garatzen dituzten erakundeen sentsibilizazio eta prestakuntzan –emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arloan– aurrera egiteko; horrez gain, segimendu batzordeetan ere parte hartzen ari gara eta programa eragilea prestatzeko bidean sortuz doazen dokumentuei ekarpenak egiten ari gara.



3.1.3. Trebakuntza

Profesionalen prestakuntza generoarekin zerikusia daukaten politikak garatzeko oinarrizko estrategiatzat hartu izan da. Europar erakundeek ere onartzen eta azpimarratzen dute prestakuntzaren garrantzia eta *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. planean* ere bizkortze estrategia bezala azaltzen da. Hori horrela, trebakuntzak aurrera egiteko lehentasunezko estrategia izaten jarraitzen du Emakunderentzat eta lehen aipatutako testuingurua aintzat hartuta, prestakuntza indartu eta zabaldu egin da legealdi honetan.

Emakundek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko egin duen lanak aholkularitza teknikoko eskaerak areagotu egin ditu. Berdintasunaren inguruko trebakuntza planak diseinatzearen eta prestakuntza ekintzak gauzatzearen ingurukoak izan dira eskaerak.

Prestakuntza hainbat ekintza ildoren arabera egituratu da:

Barneko prestakuntza

Prestakuntza hori elkarteari berari zuzentzen zaio eta Erakundeko langileek prestakuntza ekintzetan parte har dezaten bilatzen du, helburu bikoitzarekin:

- Zenbait gaitan sakontzea eta haien inguruko irizpideak batzea, haien berritasuna dela-eta ez baitira behar adina landu.
- berdintasun politikak bultzatzeko erreferentzia izan daitezkeen esperientziak ezagutzea.

Aipagarria da Emakundeko langileek berdintasunarekin lotutako trebakuntzan parte hartzen jarraitu dutela. 2007an hasitako trebakuntza prozesuarekin baitan egindako trebakuntza jardueretan esanguratsuena zera izan da, Castellóko Jaime I unibertsitateak antolatutako «Generoaren *mainstreamingari*» buruzko graduondoko ikastaroa egin dutela Erakundeko teknikariek.

Gainera, azken urteotan bezala, Emakundek urtero gai berri baten inguruan antolatzen duen nazioarteko SARE biltzarrean izan dira erakundeko langileak. Aurtengo gaia berrikuntza izan da, emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunaren ikuspuntutik begiratuta.


Kanpo prestakuntza

Beste erakunde eta entitateen lan esparruan prestakuntza ekintzak antolatuzera bideratuta dago.



Lau izan dira ekimen nagusiak:

- EHUK antolatuko «Emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunari buruzko masterrean» hartu du parte Emakundek. Masterraren helburua profesionalak administrazioan zein erakunde pribatuetan berdintasun teknikari izateko gai-tzea da. Ikasleei beka eman zaizkie eta irakaskuntzan ere parte hartu da.





- «Emakumeen aurkako indarkeria kasuetan esku hartzeko masterrean» ere parte hartu du Emakundek. Masterraren helburua da emakumezkoen aurkako indarkeria identifikatzeko, diagnostikatzeko eta esku hartzeko profesionalak gaitzea. Aurreko kasuan bezala, beka eman zaizkie ikasleei eta irakaskuntzan ere parte hartu da.
- «Generoa eta kudeaketa ekonomikoa: diruak ba al du sexurik?» ikastaroa antolatu du Emakundek EHUren Udako Ikastaroen barruan.
- Berritzeguneetako profesionalentzat hezkidetzari buruzko trebakuntza programa antolatu da emakumezkoen aurkako indarkeria prebenitzeko NAHIKO hezkidetzako programaren harira. Hiru hilean behin egin diren mintegietan honako gaiak jorratu dira:
 - NAHIKOko irakasleei zuzendutako «Aniztasuna, igurikimenak eta berdintasuna».
 - «Hezkidetzari emakumeen aurkako indarkeria saihesteko esparru gisa».
 - «Berdintasunerako orientazioa»
 - «Generoa eta komunikabideak».

Aholkularitza espezializatua

2008an hiru ildo nagusiren inguruan egin da aholkularitza lana.

- Administrazio Orokorren zerbitzura lan egiten dutenentzat *Berdintasunerako trebakuntza plana* diseinatu da. Emakundek koordinatuta eta bere gidaritzapean, Herri Ardularitza Euskal Erakundeak eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak hartu dute parte. 2008ko martxoan sail arteko batzordean aurkeztu zen plan hori burutu da aurten. Hamar urterako (2008-2018) trebakuntza plana da. 4/2005 Legeak aipatzen dituen alderdi nagusien inguruko trebakuntzari buruzkoa da: generoaren inpaktuaren ebaluazioa, ikasketetan generoaren ikuspegia integratzea, hizkuntza modu ez sexistan erabiltzea, genero ikuspegia administrazioaren jardueretan erabiltzea eta abar dira alderdi nagusi horiek. Planak barne hartzen ditu politikarien, teknikarien, sail bakoitzean berdintasun politikak sustatzeko eta koordinatzeko ardura duten langileen eta administrazio langileen trebakuntza.
- Programazioaren lehenengo zatian (2008-2009) abian jartzeko ekintzak programatzeko aholkularitza tekniko eman du Emakundek.
- Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak bi erakunde horientzako berdintasunaren inguruko trebakuntzarako plan bat diseinatzeko sortutako lan batzordean parte hartu du Emakundek. Laguntza tekniko espezializatua eskaini du Emakundek batzorde horretan.



- Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasun eta Herritarren Eskubideen Zuzendaritza Nagusiari aholkularitza eskaini dio Emakundek bertako langileei barneko trebakuntza eskaintzeko. Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearekin elkarlanean, bertako langileei *Emakumezkoen eta gizonen berdintasunerako IV. planaren* inguruko sei orduko trebakuntza eskaini die Emakundek 2008an eta, horrela, jarraipena eman zaio 2007an 4/2005 Legearen harira jaso zuten trebakuntzari.
- Administrazioaren hiru mailetako erakundeei aholkularitza eskaini zaie pres-takuntza ekintza zehatzetarako eta esperientziak koordinatu eta trukatzeko.

3.1.4. Programa edo ekintza pilotuak diseinatzea, martxan jartzea, gauzatzea eta haien segimendua egitea

Emakundek eskarmentu handia du jada legealdi honetan ere lantzen ari den susta-penerako estrategia honetan. Ondoren politika orokorretan sar daitezkeen proiektu pilotuak abian jartzean datza estrategia. Administrazio ezberdinen esku hartzea koordinatu egiten dela da programa horien balio erantsietako bat. Horri esker, emaitzak eraginkorragoak dira.

Momentu honetan martxan dauden proiektuak honako hauek dira:

NAHIKO programa

Emakumeen aurkako indarkeria fenomeno konplexua eta dimentsio anitzekoa da. Emakumeak gizartean dauden berdintasunik gabeko egiturazko egoeran dago indarkeria horren jatorria. Hala adierazten du *Etxeko tratu txarrak eta sexu era-soak jasan dituzten emakumeei zuzendutako arreta hobetzeko erakundeen arteko akordioak*. Arazoa errotik konpontzeko biktimei arreta eskaintzearen alorretik eta prebentzioaren alorretik jarduera koordinatuak egin behar direla ezartzen du akordioak.

Indarkeria sexista prebenitzeko emakumezkoen eta gizonzkoen arteko desberdin-tasunak deuseztatu behar dira, desberdintasun hori baita indarkeriaren euskarri. Horretarako, beharrezkoa da gizarteratzeko prozesuan lan egiten duten erakun-de eta mekanismo guztietan eragitea (familia, eskola, hedabideak, publizitatea, hizkuntza...), generoaren rol eta estereotipo nagusiak aldatuz eta begirunean eta sexuen arteko berdintasunean oinarritutako balioak eta ereduak sustatuz. Horrela aitortzen du *Emakumezkoen eta gizonzkoen berdintasunerako 4/2005 Legeak*. Lege horrek arautzen ditu hezkuntzaren alorrean emakumezkoen eta gizonzkoen arteko berdintasuna sustatzeko egin beharreko jarduerak. 29. artikuluan, bestek

beste, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen laguntzen duten hezkidetzako proiektuak egitea aipatzen du.

Testuinguru horretan, NAHIKO hezkidetzaren programa jarri zuen abian Emakundek emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko hezkidetzaren ikuspuntutik lan egiteko. Ikerketa-ekintza eredu oinarrituta dago programa eta helburu bikoitza du:

- Nesken eta mutilen arteko harremana eta bizikidetzaren hobetzea.
- Ikasleei lehenengo bikote harremanak modu positiboan aztertze eta eraikitze baliabideak ematea.

2003an hasi zen programa eta lehenengo fasea 2005eko ekainean amaitu zen. Hiru ikastetxek hartu zuten parte programa pilotu gisa balio izan zuen lehenengo fase hartan. Programa pilotuaren emaitzak ikusita, 2005eko azaroan esperimentazioarako bigarren fasea jarri zen martxan, lehenengo baino zabalagoa. 2005-06 eta 2006-07 ikasturteetan aplikatu zuten eta guztira 37 ikastetxek hartu zuten parte. Lau urteko lanaren ondoren, lehen hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleei esku hartzeko proposamen bat eta material eta baliabide ugari prestatu dira.

2007ko irailean beste proiektu pilotu bati ekin zion Emakundek. Proiektu horri esker, lehen hezkuntzako gainerako mailetara ere hedatuko dira proposamena eta baliabideak. 2007-08 eta 2008-09 ikasturteetan hezkuntzako fase horren bigarren zikloa lantzen ari gara (8-10 urte). Ikastetxe kopuru txiki batekin ari gara



Nahiko eskola-programan parte hartu duten umeak

lanean, ikastetxe horietan ikerketa-ekintza lanak egiteko, Emakundek zuzenduta, segimendua eginda eta zainduta. Hamaika ikastetxe, 21 talde eta 450 ikaslerekin eta horien familiekin ari gara lanean.

Lau ardatz ditu programak: irakasleak trebatzea, ikasleak eta familiak sentsibilizatzea eta baliabideak eta materialak prestatzea. Gainera, hiruhileko bakoitzean unitate didaktiko baten inguruan garatzen da programa. 2008an hiru unitate didaktiko garatu dira. Horietako bakoitzaren materialak honakoak dira:

- Irakasleentzako gida
- Ikasleen koadernoak
- Familien koadernoak
- Material eta baliabide osagarria

Horiez gain, unitate didaktiko bakoitzean unitate didaktikoaren edukiaren inguruko saio berezi bat egin da. Berdintasunean eta gizarte eta kultur sustapenean espezializatutako gazte talde batek dinamizatu du talde hori. Aurrez helburu horretara bideratutako trebakuntza eta entrenamendua jaso zituzten gazte dinamizatzaile horiek. Hiru hilean behingo saio bat ere egin da familiekin, landutako edukien berri emateko, programaren inguruan dituzten iritziak jakiteko eta programak eskolan zein etxean duen eragina aztertzeko. Saio horietan ere, Emakundek trebatutako pertsonak hartu dute parte.

Azkenik, irakasleekin ere hiru hilean behingo trebakuntza mintegiak egin dira. Urte osoan lau mintegi egin dira, irakasleei hezkidetzaren inguruko trebakuntza eskaintzeko eta egindako lanaren segimendua egiteko².

Ikastetxeekin egindako lana Berritzeguneetan egindakoarekin osatu da. Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleei laguntzeko zerbitzuak dira Berritzeguneak. Programan parte hartu duten ikastetxeetako aholkulariek prozesuan lagundu diete eta prestakuntza mintegietan zuzenean hartu dute parte. Hala, esperientziazko prozesuan zehar programa ezagutzuz eta programara hurbilduz joan dira eta horrek erraztu egingo du Emakundek zuzendutako esperientzia pilotua amaitzen dutenean abian jarriko den ezartze fasean egin beharko duten aholkularitza eta segimendu lana.

Programaren osagarri, ebaluazio prozesu bat egin da, kopuruak eta nolakotasunak aintzat hartuz, UPV/EHUrekin lankidetzaren hitzarmena sinatuta.

2 Xehetasun gehiago jakin nahi izanez gero, jo 3.1.3. atalera



EQUAL «KIDEITU» proiektua

Equal Erkidegoaren Ekimenaren barruan dago kokatuta proiektua eta Europako Gizarte Funtsak finantzaturakoa da. Helburua lan merkatuan egon zitekeen edozein motako bereizkeriak, bazterkeriak eta desberdintasunak desagerraraztea zen. Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna funtsezkotzat hartzen du eta, horregatik, enplegurako Europako estrategiaren planteamenduari jarraiki, kontuan izaten da, zeharka, enplegarritasunaren, enpresa espirituaren eta enpresen eta langileen moldakortasunaren zutabeetan. Gainera, modu espezifikoan hartzen da aintzat aukera berdintasunaren laugarren zutabea.

Ekimen honen barruan Emakunde zuzenean proiektu bat sustatu zuen; proiektu horren helburua, besteak beste, Ebaluazio Taldeak hasitako lanarekin jarraitzea zen EAeko genero ikuspegiarekin. Proiektu horren izena «Kideitu:Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu- eta prestakuntza-zerbitzuen kalitatearen bila» da. Proiektuaren oinarria emakumeek eta gizonen lan merkatuan duten desberdintasuna zen, eta enplegu sistemetan eragina izateko beharra emakumeen eta gizonen baldintza, premia eta interesetara egoki daitezzen, emakumeak lan merkatuan gizonetzkoen baldintza beretan sar daitezela eta beren lanari euts diezaiotela lortu nahi badute.

Proiektu horren helburu nagusia genero ikuspegia Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu eta prestaketa- sistemetan integratzeko estrategia partehartzaile eta integrala diseinatu eta ezartzea zen –batez ere, aldatzen edo ezartzen ari direnen kasuan– *mainstreaming*aren helburuaren inguruko tresna, ezagutza, esperientzia eta sareak sortzeko eta batez ere, sistema horiek osatzen dituzten eragileengan eragina izateko. Proiektuaren Garapenerako Elkarteen konfigurazioak, Kideitu Sarea izena duenak, Euskadin enpleguaren alorrean emakumeek jasaten duten desberdintasun egoerak eragindako arazo konponbide integrala lortzeko gai den egitura estrategikoari erantzun zion. Helburu horrekin, lankidetzan bilatu zen arazo horien erantzun egokia aurki zezaketen beste entitate batzuekin, esaterako Aukera eta Enplegu Berdintasunaren arloko erakunde espezializatuekin, edota Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu zerbitzuak kudeatzen dituzten ahalik eta elkarte gehien ordezkatu eta biltzen dituzten erakundeekin. Zentzu horretan, *Kideituk* Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzaren laguntza jaso zuen; baita honako elkarte hauena ere: Bizkaiko Foru Aldundiaren Lan eta Trebakuntza Saila; Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubide Enplegu eta Gizarteratze Saila; Garapen, Garapen Agentzien Euskal Elkartea; Eudel, Euskadiko Udalen Elkartea eta Bilboko Elizbarrutiko Caritas.

2008an Emakunde erakunde koordinatzaileari egokitu zaio 2007ko abenduan amaitu zen proiektuaren amaiera administratiboa gauzatzeko ondorengoa eginkizunak egin eta ikuskatzea:



Proiektua hedatzea (proiektuaren 6. ardatza)

Proiektua hedatzeko neurri gisa, proiektuaren web orriak aktibo jarraitzen du 2008an eta 2009an, baina modu estatikoan (eguneraketarik gabe); helbide elektronikoa honako hau: www.equalkideitu.org.

Horretaz gain, proiektua martxan egon den bitartean inprimatu diren produktuen banaketa egin da ³.

GEren Koordinazioa

Emakundek Garapen Taldea modu eraginkorrean koordinatzeko beharrezko ekintza guztiak egin ditu; horien artean, besteak beste, azken zuzendaritza batzordea eta batzorde teknikoa deitzea eta antolatzea.

Proiektua kudeatzea

Erakundeak bere gain hartu du proiektuaren koordinazio teknikoa eta administrazio kudeaketaren ekintzak egitea, baita egiaztagiriak ematea ere, txosten tekniko eta finantza txostenak barne. Proiektua bukatzerakoan proiektu osoan gertatutakoa bildu duen azken txostena sortu da.

3 Ikus. 3.1.4. atala



Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako euskal gizonen karta sinatu zuten lehen gizonak Ajuria Enean

2007an jarri zen ekimena martxan gizontasunari eta eguneroko bizitzari buruzko nazioarteko biltzarra antolatuta. «Berdintasunak gizonago egiten zaitu» leloa zuen sentsibilizazio kanpaina ere egin zen. ETB1 eta ETB2 telebista kateetan gizonen zuzendutako iragarki bat jarri zen gizonezkoek berdintasunaren aldeko konpromiso aktiboa har zezaten.

Honako ekintzak egin dira 2008an

Gizonak berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurka egin dezaten mentalitate aldaketa bultzatuko duten sentsibilizazio jarduerak

Ekimenaren berri emateko eta Gizonduz-en helburuak sustatzeko, sentsibilizatzeko jarduera ugaritan hartu du parte Emakundek (hitzaldietan, jardunaldietan, biltzarretan, etab.), baita hainbat hedabidetan ere.

Era berean, eta azaroaren 25aren harira, bezperan, azaroaren 24an, «Euskal gizonak emakumeen aurkako indarkeriaren aurka» ekitaldia egin zen Bilboko Arte Ederretako Museoa. Lehendakariak gidatu zuen ekitaldia eta berrehun lagunetik gora izan ziren bertan, gehienak gizonak.



atalak ditu gunek. Gizonduz-en bloga ere badago web gunere horretan. Berdintasunarekin, gizonekin eta gizentasun mota berriekin lotutako iritziak, gogoetak eta gaurkotasunezko iruzkinak plazaratzeko tokia da bloga.

Gizonentzako sentsibilizazio eta prestakuntza programa espezifikoa martxan jartzea

Programa honen bidez, ehun gizonen emakumezkoen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko trebakuntza espezifikoa jasotzea eta beste mila gizonen sentsibilizazio jardueratan parte hartzea lortu nahi da. Xede hori lortzeko, zuzenean eta internet bidez eskainiko diren trebakuntza eta sentsibilizazio jarduerak diseinatzeari ekin zaio 2008an.

Emakumezkoen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko masterrak eta graduondokoak hedatzea

Gizonen emakumezkoen eta gizonen berdintasunari buruzko unibertsitateko masterrak eta graduondokoetan parte har dezaten, matrikulazio garaian ikasketak horien publikitateak egin da Gizonduz-en webgunean eta unibertsitateen webgunetara sartzeko estekak ere jarri dira bertan.

Aitentzat Gizonduz bizkar-zorroa banatzea

Sentsibilizatorako hainbat material prestatu dira; besteak beste, Gizonduz bizkar-zorroa. Aita izateko bidean dauden gizonen Osakidetzako emaginek eta adopzioez arduratzen diren organo eskudunek banatuko dizkiete zorroak. Bizkar-zorroak barruan dituen materialen helburua, alde batetik, zaintzari eta aitatasunari buruzko gako praktikoen inguruko jarraibideak ematea da, eta bestetik, aitaren ereduak balaro ez sexisten transmisioan daukan eraginari buruzko hausnarketa egiteko gakoak

«Euskal gizonen emakumeen aurkako indarkeriaren aurka» ekitaldiaren une bat

Aitentzako motxilaren aurkezpena.





ezagutaraztea. Aipatutako materialak ondokoak dira, zehazki: Lehendakariak idatzitako zorion gutuna, bizkar-zorroari buruzko azalpenak biltzen dituen liburuxka, *Aitak* dokumentala, *Aitarek sekretua* ipuina, *Aitak berdintasunean* gida, *Gizonezkoak*, *berdintasuna eta gizontasun berriak* gida, *Berdinometroa* jolasa, autoan jartzeko eranskailua eta *Gizonduz* egunkaria. Ekimena abian jartzeko Emakunde Osasun Sailarekin, Osakidetzarekin eta hiru foru aldundiekin elkarlanean aritu da eta Euskadiko Kutxa izan da babesle, erakundearen eta finantza erakunde horren arteko lankidetzaz hitzarmenari esker.

Lan egitea Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bertako erakunde autonomoetako langileei pertsonak zaintzarekin lotuta ematen zaizkien baimenak luzeagoak izan daitezten

Helburu hori lortze aldera eta talde mailako negoziazioan aintzat hartzeko, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari proposamen zehatz bat igorri diogu, aita izateko bidean dauden gizonei baimena eman diezaien erditzea prestatzeko ikastaroetan parte hartzeko eta aitatasun baimena eta erditze lizentzia luza ditzan, baita gaixotasun kronikoak edo mugikortasun arazoak dituzten familiakoak zaintzeko dituzten orduak gehiago izan daitezzen ere.

3.1.5. Erakundeen arteko elkarlana bultzatzea

Emakundek sortu zenetik erabili duen estrategia zabal eta konplexu hori erabiltzen jarraituko du legegaldi honetan ere. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearen Arteko Batzordea sortu ondoren, Emakundek bere lana Batzordea laguntzera zuzentzen du, batez ere batzordeak hartzen baitu bere gain erakundeen arteko elkarlana koordinatzeko lana.⁴

Hala ere, Erakunde arteko Batzordearekin batera Erakundearen badira beste koordinazio organo espezifikoagoak, Erakunde arteko Batzordeak baino erakunde eta administrazio gehiago ordezkatzeko dituztenak. Kasu honetan, etxeko tratu txarren eta eraso sexualen biktima diren emakumeei emandako laguntza hobetzeko Erakunde Arteko Hitzarmenaren Segimendu Batzordeaz ari gara. Hitzarmen hori gaiarekin zerikusia zuten erakunde publiko guztiek sinatu zuten 2001eko urriaren 18an.

4 Ikus batzorde horri buruz 3.9 atalean adierazitakoa. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail Arteko Batzordearen eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearen Arteko Batzordearen zereginak bultzatzea eta koordinatzea, baita autonomia erkidegoko botere publikoen arteko beharrezko koordinaziorako neurriak bultzatzea ere, emakumeen egoeran eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eragina duten programei dago-kienez.



Hitzarmenaren azken helburua etxeko tratu txarrak eta eraso sexualak jasaten dituzten biktimei eskainitako laguntza hobetzea da, batez ere, parte hartzen duten profesionalak nahitaez bete behar dituzten ekintza-protokoloak ezarriz. Guzti hori indarkeria horren biktimei babes integrala eskainiko zaiela bermatzeko, osasun babesa, poliziala, judiziala eta soziala.

Emakunderi dagokio legealdi honetan kudeaketa administratiboa egitea eta hitzarmenaren segimendu batzordeari zein ekintza horietan laguntzeko Erakunde arteko Talde Teknikoari laguntza teknikoa ematea.

Hona hemen 2008an egindako jarduerak.

Segimendu batzordearen eta erakundeen arteko talde teknikoaren ohiko bilerak antolatzea, prestatzea eta haien segimendua egitea

2008. urtean segimendu batzordearekin eta erakundeen arteko talde teknikoarekin hiru bilera egin dira.

Erakundeen arteko II. Hitzarmena egitea

2007an Erakundeen arteko Talde Teknikoaren esparruan Erakundeen arteko II. Hitzarmena egiteko prozesua hasi zen, 2001ean I. Hitzarmena sinatu zenetik gertatu diren lege aldaketa ezberdinetara egokitzeko. 2008an, Segimendu Batzordeak testu berria onartutakoan, Gobernu Kontseiluak 2009rako aurreikusitako akordio berria sinatzeko baimena eman dezan beharrezkoak diren administrazio izapideak egin dira.



Erakundeen Arteko
Hitzarmenaren
Jarraipen
batzordea

////////////////////////////////////

2007ko segimendu eta ebaluazio txostena egitea

Aurreko urteetan bezala, hitzarmena osatzen duten entitate bakoitzari 2007an egitako ekintzen jarraipen eta ebaluazio txostenak eskatu zaizkio, eta txosten horietan emandako informazioa kontuan izanda, Emakundek segimendu eta ebaluazio txosten orokorra egin zuen eta Segimendu Batzordeak bere urteko lehen bilera onartu zuen.

2008an hitzarmena aplikatzeko neurrien plana eratzea

Hitzarmena sinatu duten erakundeek emandako informazioa erabiliz, Emakundek dokumentu bat sortu du. Dokumentu horretan, erakundeek, hitzarmena betez, 2008an gauzatu beharreko neurriak bildu ditu. Segimendu Batzordeak dokumentu hori onartuko zuen urteko lehen bilera.

Hitzarmena eta horren esparruan egindako lana hedatzea, webgunearen bitartez eta sentsibilizazio eta prestakuntza ekintzetan parte hartuz

Hitzarmenaren esparruan sortu diren dokumentu guztiak, segimendu batzordearen bilera laburpenak barne, erakundearen web gunearen bitartez hedatu dira.

Aldi berean, profesionaleri zein gizarteari zuzendutako sentsibilizazio eta prestakuntza ekintzetan parte hartu du Emakundek, hitzarmenarekin lotura daukaten gaiak lantzeko asmoz.

Tratu txarren biktima diren emakumeei arreta eskaintzeko tokiko mailako protokoloak diseinatzen laguntzea

2008an Eudelekin Berdintasunaren alde eta indarkeriaren kontrako udalerrien sarea martxan jartzeko sinatutako lankidetzaren esparruan, tokiko protokoloen segimendua egiteko bileretan parte hartu Emakundek. Alde batetik, oraindik tokiko protokoloak martxan jarri ez dituzten udalbatuekin bildu gara protokolo horiek prestatzen laguntzeko eta, bestetik, protokoloak jada ezarrita dituzten udalbatuekin bildu gara, horien ahultasunak eta indarguneak aztertzeko.⁵

Gainera, udalbatuei zuzendutako diru-laguntzen deialdiaren bidez, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan sektoreko diagnostikoak egiteko zortzi proiektu lagundu dira diruz, etorkizunean tokiko ekintza protokoloak garatzea ahalbidetuko dutenak, hain zuzen.

5 Ikus. 3.1.1. atala Tokiko administrazioa.

3.2. **Berdintasun politiken eta legegintza autonomikoaren segimendua, haiek emakume-gizonen berdintasun printzipiora egokitzeari dagokionez, inola ere baztertu gabe Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeari dagokion diskriminazioaren aurkako araugintzaren azterketa, ebaluazio eta ikerketa eskumena**

Emakumezkoen eta gizonzkoen berdintasunerako 4/2005 Legearen lehenengo xedapen gehigarriari jarraiki, bi prozesu osagarri dituen ebaluazio plan bat diseinatu zen: emakumezkoen eta gizonzkoen berdintasunerako 4/2005 Legea eta IV. plana ezartzeari buruzko ebaluazioa.

Alde batetik, legearen I. II. eta IV. tituluetan araututako neurriak eta III. tituluko neurri finalistak ebaluatu dira. Horretarako, 2006. urtean lehen aldiz neurtu zen zer egoeratan zeuden administrazioak aipaturiko neurriei dagokienez legea onartu zen unean; hau da, 2005eko lehen hiruhilekoan, alderatzeko erreferentzia bat izateko. 2008an bigarren tarteko ebaluazioa egin da eta hirugarren eta azkena 2010ean egingo da, legeak ezartzen duena betez.

Bestalde, III. titulua *Emakume-gizonen berdintasunerako IV. plana* nola gauzatzen den aztertzearen bidez ebaluatu da. Ebaluazio horrek beharrezkoa du informa-

zioa biltzea eta 2007, 2008 nahiz 2009ko urteko txostenak egitea, eta 2010eko emaitza orokorrek legearen ebaluazio txostena osatuko dute. 2007ari dagokion ebaluazioa egin da 2008an. (Ikus emaitzen laburpena 2. atalean, Zuzendaritza Kontseilua.)

Prozesu hori Euskal Herriko Unibertsitatearekin sinatutako hitzarmen baten bidez gauzatu da.





3.3. Lege erreformak egiteko proposamenak lantzea, bi sexuen arteko berdintasun egiazko eta eraginkorra zailtzen edo eragozten duten trabak kentzeko, baita 4/2005 Legea garatzeko araudia proposatzea ere

Emakundek, *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea* onartu eta berehala, prozesu bat abiarazi zuen, alde batetik, legea garatzeko arauak sortzeko –erakundeari dagozkionak dauzkan eskumenen arabera–, eta, bestetik, legeak eragindako arauak berrikusi, proposatu eta haien sorrerari zein egokitzapenari bultzada emateko –haiek egitea gobernuko sailen lana denean, eskumenen banaketa kontuan hartuta–. Legearen arau-garapena ezin hobea izateko beharrezko prozesuen konplexutasuna dela-eta, legealdi honetan funtzio horren garapena indartu du erakundeak.

Ondorengoia izan da 2008ko jarduera arauemailea:

Etxeko Esparruan Tratu Txarren Biktima diren Emakumeei Laguntzeko Programa Araztea (54-62 art. eta Azken Xedapenetan 10.)

2006an, Erakundeak dekretuaren lehen zirriborroa egin zuen, eta hartan 4/2005 Legearen VII. kapituluko 2. atalean xedatutakoa garatzen da. 2007tik, aipatu dokumentu hori Erakundeen Arteko Hitzarmeneko Erakundeen Arteko Talde Teknikoaren barruan lantzen ari dira, eta 2008an, atera den testuaren izapidetze administratiboari ekin zaio Erakundeen Arteko Hitzarmenaren Segimendu Batzordeak onartu ondoren.

Berdintasunerako Emakumeen Kontseilua sortzeko legearen aurreproiektua egitea (24.5 artikulua)

Emakumeen elkartean partaidetza prozesu garrantzitsu bat izan eta gizarte osoari kontsulta publikoa egin ondoren, Berdintasunerako Emakumeen Kontseilua sortzeko lege aurreproiektuaz dagozkion aginduzko txostenak eta irizpenak egiten ari dira, eta, ondoren, lege proiektu gisa onartuko du Gobernu Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzara bidaliko da, behar bezala bideratzeko.

Pentsioen ordainketak ez egiteagatiko kasuetarako berme funts bat erregulatzeko arauaren proiektua egitea (45.2 art.)

2007an Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundeen Arteko Batzordearen esparruan abiarazitako analisirako garaia igaro ondoren, Emakundek aipatutako arauaren proiektua prestatu du 4/2005 Legearen 45.2 artikulua garatuta eta Jaurlaritzaren Lehendakariordetzara igorri du Gobernu Kontseiluak onartzeko beharrezkoak diren izapide administratiboak egiteko.

Administrazioaren kontratazioetan emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunari buruzko irizpideak arautzea (20.2 eta 20.3 art.)

Inplikaturik dauden gainerako erakundeekin batera 2008ko apirilaren 29ko akordioak euskarri duen dokumentua prestatu duen batzorde teknikoan parte hartu du Emakundek. Akordio hori Gobernu Kontseiluaren da, gizarte eta ingurumen irizpideak eta beste politika publiko batzuk autonomia erkidegoko administrazioaren eta horren sektore publikoaren kontratazioetan sartzeari buruzkoa. Aipaturako irizpideen artean daude, besteak beste, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzeko irizpideak eta, horrela, 4/2005 Legeak gai honen inguruan aurreikusitakoa betetzen da.

3.4. Erkidegoko administrazioak arauak egiteko sustatzen duen prozeduraren barruan txostenak zabaltzea, eta 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan xedatutakoa behar bezala aplikatzen dela egiaztatuta, eta, hala badagokio, hobetzeko proposamenak egitea

4 /2005 Legearen zortzigarren xedapen gehigarria betetz, Gobernu Kontseiluak generoaren araberako eraginaren alde aurreko ebaluazioa egiteko eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak jasotzeko 2007an onartutako jarraibideen ildotik, gobernuko sailak behartuta daude generoaren araberako eraginaren txostenak egitera eta txosten horiek Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundera bidaltzera, hark egiaztapen txosten bat egin dezan gauzatutako izapideen zuzentasunaz eta, hala badagokio, hobetzeko proposamenak gehi ditzan. Horrela, 2008an Emakundek aurreko ekitaldian hasitako lanarekin jarraitu du eta sailek igorritako ehundik gora ebaluazio txostenen berri eman du. Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzkoak dira txostenak eta 2008an aurreko urteko kopurua bikoiztu da⁶.

6 Ikus 3.6 atala jarduera honi buruzko informazio osagarri ikusi nahi izanez gero.

////////////////////////////////////

2007-2008KO DATUAK, ERAGINARI BURUZKO TXOSTENAK

	2007			2008			GUZTIRA
	Legeak	Dekretuak	Aginduak	Legeak	Dekretuak	Aginduak	
Lehendakaritza							
Ogasuna eta Herri Administrazioa ¹	0	0	4	4	1	4	13
Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila	0	0	1	5	2	16	24
Herrizaingo Saila	2	0	2 ²	0	7	2 ³	13
Industria, Merkataritza eta Turismo Saila	1	1	2	0	2	5	11
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	0	4	1	2	10	5	22
Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerkuntza	1	14	3	1	9	20	48
Osasuna	1	2	0	0	0	0	3
Kultura	0	2	0	3	4	1	10
Saileko teknikariak	0	1	0	1	2	0	4
Garraioa eta Herri Lanak	1	0	0	1	0	0	2
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	0	1	0	2	8	0	11
Subtotalak mailaka	6	25	13	19	45	53	
GUZTIRA URTEKA		44			117		161

1 Lehendakariordetza barne (bi lege)

2 Horietako bat erabakia da

3 Bi erabaki

Gainera, eta legealdi hasieratik egin dugun bezala, sail arteko eta erakunde arteko planen inguruko txostenak egiten jarraitu du Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak hala behar izan denean, esleituta dituen funtzioak betez.

3.5. **Gobernuko sailek, foru aldundiek eta tokiko erakundeek emakume-gizonen berdintasunerako dauzkaten planak Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi bakoitzean onartu behar duen plan orokorrean aurreikusitako interbentzio ildoetara eta jarraibideetara egokitzeari buruz txostenak zabaltzea**

4 /2005 Legeak, 15.4 artikuluan, ezarrita dauka sailen berdintasun planez txostena egin behar duela Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, haietako edukiak Gobernuaren interbentzio ildo eta jarraibideetara egokitzeari dagokionez, eta horregatik, txosten horien oinarritzko edukiak finkatuko dira eta, onartu aurretik, sailen planei buruzko txostenak egingo. Lan hori 2007an egin zen; hortaz, 2008an, jarduera, nagusiki, foru eta toki planei buruz txostenak egitea izan da.

Izan ere, 4/2005 Legearen 15.2 artikulua dio foru aldundiak eta toki erakundeak behartuta daudela berdintasunerako foru eta toki planak Emakundera bidaltzera, haietaz txostenak egin daitezen onartu aurretik.

Txosten horiek egiteko, Emakundek sustatu nahi dituen hainbat irizpide hartzen ditu kontuan. Irizpide horiek sustatzeko, lehen azaldutako ekintzak egiten ditu, udal planak prestatzen laguntzekoak, hain zuzen. Planak legearen edukiekin eta IV. planaren helburuekin eta estrategiekin ahalik eta hein handienez bat etorritu diseinatzea da helburua; udalerrri bakoitzak dituen beharrei buruz egindako diagnostikoan oinarrituta egotea; era berean, planak bideragarriak izatea teknikoki eta ekonomia eta denboraren aldetik; eta, azkenik, planok udal edo foru mailako diagnostikoan zehaztutako gizarte errealitatearen aldaketara egokitutako helburuak eta ekintzak zehaztea.

Foru plan baten (Gipuzkoako Foru Aldundiarena) eta hamar udal planen inguruko txostenak egin dira eta dagozkien gobernu organoek onartu aurretik, erakundeari igorri zaizkio:

LEHENENGO PLANAK	BIGARREN PLANAK	HIRUGARREN PLANAK
Errenteria	Donostia	Santurtzi
Deba	Leioa	Berriz
Elgoibar	Muskiz	
Mutriku	Abanto	
Orozko		



3.6. Esparru politiko guztietan generoko ikuspegia sartzeko metodoak prestatzea eta bultzatzea, eta, bereziki, jarraibideak proposatzea generoaren araberako eraginaren aldez aurreko ebaluazioa egiteko eta administrazio araudian zein jardueran emakume-gizonen arteko berdintasuna sustatu eta desberdintasunak desagerrarazteko neurriak sartzea

Erakundearen zeregin horrek zerikusia du 4/2005 Legea onartzeak sortutako eskakizun eta behar berriekin, besteak beste, generoaren araberako eraginaren ebaluazioak egin behar izatearekin. Emakundek legealdi osoan lan handia egin behar izan du horren harira.

Esparru honetan 2008an egindako ekintza zehatzak hauek dira:

Eusko Jaurlaritzaren intranetean gune bat sortu da Generoaren araberako eraginaren txostenekin

Jaurlaritzaren intranetean gune berria sortu du Emakundek. Bertan, Generoaren araberako eraginaren txostenak prestatu ondoren sortutako edukien biltegi gisa funtzionatzen duen atal bat dago. Sail eta erakunde autonomoen lana errazteko balio duten materialak ere sartu dira biltegi horretan.

Hizkuntza gidak

4/2005 Legeak hizkuntzaren erabilera ez sexistaren inguruan ezarritako baldintzak betetzeko, hainbat hizkuntza gida ere egin dira⁷.

7 Ikus 3.10 eta 3.14 atalak

3.7. Emakumeen eta gizonen berdintasun esparruan eskumena duten erakunde, organo eta unitateetako langileen eginkizunari eta trebakuntzari dagokionez, bete beharrezko gutxieneko baldintza oinarritzko eta komunen proposamena egitea EAEko herri administrazioetako organo eskudunei

4 /2005 Legearen 17. artikulua herri administrazioei ezartzen die pertsonal teknikoaren esperientzia eta/edo gaitasun espezifikoak bermatzeko beharra, eta horretarako, beste hainbat neurriren artean, berdintasunaren arloan jakintza baldintza espezifiko batzuk ezartzen ditu, baita aukeraketa prozesuetako gai-zerrendetan gai horri buruzko edukiak sartzea ere. Horretarako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko, Funtzio Publikoko, Eudeleko eta Emakundeko arduradunek osatutako lantaldea sortu zen 2007an.

2008an gogor lan egin dugu aipatutako 17. artikulua hori garatzeko. Bi ekimen egin dira horren harira:

- Herri administrazioan berdintasuna izateko pertsonal teknikoaren kontratazio-rako oinarrien eredu berria prestatzea eta hedatzea; eredu horretarako sortutako batzordeak egina da, eta batzordea HAEEko, Funtzio Publikoko, Eudeleko eta Emakundeko arduradunek osatuta dago. Proposamenaren helburua da udalei oinarrien eredu adostu bat aurkeztea, trebakuntzaren eta esperientziaren alorrean goian aipatutako irudi profesionala homogeneizatzeko eta izendapena eta baldintzak bezalako alderdi garrantzitsuak bateratzeko.⁸



- Batzorde honek emakumezkoen eta gizonzkoen berdintasunari lotutako alderdiak enplegu publikora sartzeko gai guztietan sartzeko proposamena. Proposamenaren sartu dira administrazioari alor guztietan agertzen diren gaiak eta lan arlo bakoitzeko gai espezifikoak identifikatu dira.

8 Ikus. argitalpenen 3.14. atala



3.8. **Jarduerei, aholkularitzari eta EAEko herri botereekiko lankidetzari bultzada ematea emakume-gizonen berdintasun alorrean eta, bereziki, emakume-gizonen berdintasunerako prestakuntza planen diseinuan, emakumeen aurkako indarkeria kasuetan esku hartzeari lotutakoak barne**

Legearen 17. artikuluko lehen eta bigarren puntuak garatzearen, EAEko administrazioen zerbitzura diharduten langileak gaitzeari dagokionez, lantalde bat osatu zen 2007an, HAEEko, Funtzio Publikoko eta Emakundeko arduradunetz osatuta, administrazio nagusiko langileak berdintasunean prestatzeko esparru orokor bat diseinatze aldera. Emakundek dinamizatutako eta koordinatutako talde horren helburua planaren egitura eta prestakuntza estrategiak zehaztea zen, 2008tik aurrera eta langileen prestakuntza has zedin, plan horretan ezarritako lehentasunen, mailen eta kronogramaren arabera.

2008an burutu da **Berdintasunean trebatzeko planaren** prestaketa. 2008tik 2018ra garatuko da⁹.

Martxoan aurkeztu zitzaion plana Sail Arteko Batzordeari. Ondoren HAEErekin lanean aritu gara programazioaren lehenengo zatian (08-09) eskainiko diren ikastaroak diseinatzeko. Azkenik, Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomoetan trebakuntzaz arduratzen diren koordinatzaileei aurkeztu zitzaien.



9 Ikus aholkularitza espezializatuari buruzko 3.1.3. atala.

3.9. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail Arteko Batzordearen eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearen Arteko Batzordearen zereginak bultzatzea eta koordinatzea, baita autonomia erkidegoko botere publikoen arteko beharrezko koordinaziorako neurriak bultzatzea ere, emakumeen egoeran eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eragina duten programei dagokienez

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail Arteko Batzordea abenduaren 26ko 261/2006 Dekretuak araututa dago, eta organo horren ardura da Eusko Jaurlaritzaren jarduerak koordinatzea berdintasunaren esparruan, eta halaber, 1993an sortutako Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen aldeko Ekintza Planaren Koordinaziorako Sail Arteko Batzordea ordezkatu du.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearen Arteko Batzordea, bestalde, urtarrilaren 16ko 5/2007 Dekretuak arautua bera, autonomia, foru eta toki administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasun esparruan garatzen dituzten politika eta programen koordinaziorako organoa da.

Bi organoek laguntza talde teknikoak dituzte –Sail Arteko Talde Teknikoa eta Erakundearen Arteko Talde Teknikoa–, eta haietako kideak 2007an izendatu zituzten



Sail Arteko
Batzordearen
bilera,
Lehendakariak
zuzenduta

2008an honakoak egin dira:

- **Sail Arteko Batzordearen bilera.** Bertan, sail bakoitzak bere 2008rako dokumentu-programaren berri eman zuen eta Emakundek 2007an gauzatutako programen segimendu txostena aurkeztu zuen.
- **Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Erakundearen Arteko Batzordearen bilera.** Mantenu pentsioak eta pentsio osagarriak ordaintzen ez direnean horiek bermatzeko funtsa sortzeko izapideen egoeraren berri eman zen. 4/2005 Legearen 45.2 artikulua aurreikusten du funts hori. Bileran azaldu zen, azterketa juridiko eta ekonomiko egin ondoren, Emakundek Jaurlaritzaren Lehendakariordetzara berme funts bat sortzeko arauaren proiektua igorri zuela, Gobernu Kontseiluak onartzeko beharrezkoa den administrazio izapideak egin zitzaizkion.

3.10. Emakumeen eta gizonen baldintza, behar eta interes desberdinak aztertzea, baita bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean haietatik eratorritako desberdintasunak ere, bereziki jarduera esparru guztietan gauzatu beharreko politika zehazteko ikerketak egitea sustatuz

Funtzio hori betetzen aritu da erakundea bere sorreratik eta gaur egun ere, horretan jarraitzen du, 4/2005 Legea onartu ondoren. Urtero egin beharreko azterketen zehazpena, alde batetik, Erakundea sortzeko 2/1988 legeak erabakitzen du, emakumeek erkidegoan duten egoeraz urtero txosten bat egiteko betebeharra ezartzen baitu, eta, bestetik, IV. Planean berdintasunerako biltzen diren ekintzek eta Erakundeak une bakoitzean heltzen diren programen eta/edo eginkizunen beharrek. Batzuetan, halaber, Erakundeak Lege Biltzarretik datozen proposamen edo aginduei erantzuten die.

Honako jarduera hauek osagarriak dira, gizarte errealitatea hobeto ezagutzen lagunduko dute: emakumeen eta gizonen berdintasun arloan ikerketa proiektuak eta ekintza pilotuak argitaratzen eta egiten laguntzeko diru-laguntzetarako deialdia; dokumentazio zentroa mantentzea eta kudeatzea, aukera ematen baitu ikasteko eta ikertzeko aholkularitza nahiz bitartekoak emateko bai Emakundeko eta administrazio publiko guztietako pertsonalari berari, bai beste esparru batzuetan –unibertsitateetan eta abar– ikerketan dihardutenei.

2008an honakoak egin dira:

Hizkuntza gidak egitea

Hizkuntza modu ez sexistan erabiltzearen inguruko kontuak argitzeko jaso ditugun orientazio eta material eskaerak gero eta gehiago direnez, bi gida praktikoa prestatu ditugu:

- Osasun esparrurako hizkuntza gida
- Kirol esparrurako hizkuntza gida.

Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko urteko txostena

Aurreko urteetan bezala, eta bigarren mailako iturrietatik datozen datuen bilduma eta tratamendua den neurrian, emaitza estatistiko berriak gertatu direneko se-

ktore guztiei buruzko datuak eguneratu egin dira: Demografia, hezkuntza, kultura, lana, gizarteratzea, osasuna eta emakumeen aurkako indarkeria. Aurten arreta berezia eskaini zaio Estatuko autonomia erkidegoekin eta Europar Batasuneko gainerrako estatu kideekin aldeaketak egiteari. (*Ikus datuen laburpena 2. atalean, Zuzendaritza Kontseilua*).





«Emakumeen aurkako indarkeria» txostena eguneratzea

Txosten horrek indarkeriaren fenomenoaren alderdi teorikoak eta hainbat esku-hartze esparrutan egindako jarduerak jasotzen ditu

Emakumeen jabekuntzari buruzko azterlana

Jabekuntzari emandako definizioaren barruan –*Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren* ardatz estrategiko gisa ezarri baita–, eta hartan jabekuntzaren osagai gisa hartutako alderdi guztiei heltzeko, hiru azterlan osagarri egin dira:

- Jabekuntza fisiko/afektiboa eta kulturala nerabezaroan. Ikerketak, nagusiki, nerabezaroan dauden neska eta mutilen jabekuntza prozesuei eta autonomia zein negoziazio ahalmenei heldu die.
- Jabekuntza ekonomikoa: egoera eta aukera pertsonalak eta sozialak. Emakumeek lan merkatuan dituzten sarrera eta iraupena aztertu ditu, baita nolako egokitzapena dagoen haien prestakuntza mailaren eta zeregin mailaren artean, desberdintasunak eta egungo egoerak dakarren aberastasun eta aukera galera ere. Sexuaren aldaerak antzemandako desberdintasunetan duen pisuaren azterketa ere egin da.
- Jabekuntza soziopolitikoa. Emakumeek politikako, gizarteko eta ekonomiako erabakiak hartzeko alorretan duten presentzia zertan den eguneratu da eta datu gehiago eman dira.



////////////////////////////////////

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun arloan ikerketa proiektuak edo ekintza pilotuak argitaratu eta egiteko diru-laguntzetarako deialdia

Emakumeen eta gizonen berdintasun arloan ikerketa lanak edo ekintza pilotuak argitaratu eta egiteko proiektuei diruz laguntzeko deialdia egin da. Deialdian parte hartzeko aukera izan dute gai honen inguruan autonomia erkidegoan egiten diren argitalpen, ikerlan edo ekintza pilotuen egileek. Argitalpenen kasuan, lehenengo aldikoak izan behar dute deialdian parte hartzeko. 2008an jaso ziren 46 eskaeretatik hamabi diru-laguntza eman ziren. Horietako hiru ikerketak argitaratzeko izan ziren, sei ikerketak egiteko eta hiru ekintza pilotuak egiteko.

Argitalpenak ezkongaietako harremanetan gertatzen den emakumeen aurkako indarkeriari eta lan eta hedabideen arloko jabekuntzari buruzkoak dira. Ikerketak lan arloko jabekuntzari buruzkoak dira; irakaskuntza, kirola eta lidergoa bezalako esparruak ere lantzen dituzte. Ekintza pilotuak, berriz, emakumezkoak besteak beste, metalaren eta kimikaren alorrean sartu eta hor gizonekiko berdintasunean aritzea erraztera bideratuta daude. Azken talde honetan sartzen dira, halaber, hirugarren sektoreko erakundeetan genero ikuspegiaren zeharkakotasuna errazten duten ekintzak ere.

2007an emandako diru-laguntzen justifikazioari buruzko dokumentazioa eta memoriak ere aztertu dira. Emaiza onak lortu dira, lanak aurreikusita bezala egin baitziren.

Dokumentazio Zentroa mantentzea eta kudeatzea

Emakunderen dokumentazio zentroak ohiko kudeaketa eta mantentze lanak egin ditu: funtsak eskuratzea, katalogazioa eta indexaketa, aldizkarien harpidetzak kontrolatu eta horietatik artikuluak hustea, etab. Horiez gain, zentroak eskaintzen dituen zerbitzuen erabiltzaileei arreta eskaintzearen inguruko lanak ere egin dira:

- Informazio eskariei erantzuna gutunez, faxez, posta elektronikoz, telefonoz edo zuzenean.
- Aholkularitza bibliografikoa eskaintzea eta zerrenda bibliografikoak eta bideo geografikoak egitea eskaerak jaso ahala; bai Emakundeko langileentzat, bai kanpoko erabiltzaileentzat.
- Gai jakinei buruzko prentsako albisteak hautatzea.
- Liburu, bideo eta abarren maileguak.

Emakundeko langileen eskaerei erantzun die zentroak. 251 kontsulta jaso dira, 2007an baino % 72 gehiago. Kanpotik egindako 450 kontsultei erantzun zaie,

//////////////////////////////////// 75

////////////////////

2007an baino % 12 gehiagori. Horietatik % 20,88 (94 eskaera) beste autonomia erkidegoetatik egindako eskaerak izan dira eta 6 beste herrialdeetatik egindakoak.

Eskaera guztien % 75,77 posta elektronikoz egin dira. Kontsultarako bide horrek igoera handia izan du 2007rekin alderatuta, orduan % 67,05 izan baitziren posta elektronikoz bidez egindako eskaerak. Maileguan emandako gaien kopurua: 144 liburu, 55 bideo eta 29 CD edo DVD. Maileguan emandako liburu kopurua jaitsi egin da, baina jaitsiera hori ikus-entzunezko dokumentuen (batez ere CDak edo DVDak) maileguek izandako igoerarekin orekatzen da. Zentroari kontsultak egiteko posta elektronikoen bideak izan duen igoera nabarmenari lotuta, adierazi behar da gero eta gehiago direla dokumentu elektronikoak bidalita asetzen diren eskaerak (monografiak, artikuluak eta PDF edo Word formatuko dokumentuak). Gehienak Emakundek paperean argitaratutako dokumentuak dira baina agortuta daude edota formatu horretan bakarrik argitaratuta daude. Aretotan edo zuzenean egindako kontsultak % 40 jaitsi dira (2007an % 25 izan ziren eta iazko ikasturtean % 15). Laburbilduta, posta elektronikoa tresna nagusi gisa sendotu egin da, bai kontsultetarako, bai dokumentazioa lortzeko ere. Aldiz, aretoko kontsultak eta dokumentazioa paperean eskuratzea jaitsi egin dira.

Telefono bidez erantzun diren kontsultak 1.089 izan dira, 2007an (970) baino zertxobait gehiago. Urtean zehar oso irregularki banatuta egin dira kontsultak: datuak aztertuta ikus daiteke azken urteotan azaroaren 25ak, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako egunak, gero eta oihartzun handiagoa duela hedabideetan eta gizartean. Kanpoko kontsultek izandako bilakaerak berretsi egiten du datu





hori. Urrian izan ditugu gure zentroan kanpoko erabiltzaile gehien, alde handiz gainera, bai aretoan, bai liburuen maileguaren sailean, eta gehien kontsultatu dutena «azaroak 25» izan da.

2002tik Emakunderen webgunetik *on line* kontsultatu daitezke zentroko katalogoak. Liburutegiko datu basean 467 erreferentzia dokumental berri sartu dira 2008an. Horietatik % 45 monografiak dira eta % 50etik gora artikulua, dokumentuak, etab. Nabarmenezkoa da, halaber, erreferentzia dokumental berrien % 10 euskarri digitalekoak direla (DVD).

Barne antolakuntzarako lanak ere egin dira 2008an, ditugun agiriak hobeto aprobetxatze eta zaintze aldera.


Estatuko beste dokumentazio zentroekin elkarlanean aritzeari dagokionez, nabarmenezkoa da Dokumentazio Zentroen eta Liburutegien Sareak garatutako jarduerara eta proiektuetan parte hartu duela Emakundek; hala nola, «Aldizkarien katalogo kolektiboa» proiektuan. Oraindik abian dagoen asmo handiko proiektua da, kide diren zentro guztietako aldizkako argitalpenen izenburuak biltzen ditu, oraindik argitaratzen direnak eta ez direnak ere bai. Gainera, «Emakumea» gaiarentzat espezifikoa diren indexatze tresnen (*thesaurusa*) berrikuste eta eguneratze kolektiboa egiteko lanetan ere hartu du parte¹⁰.

10 Ikus 3.16 atala



Kanpoko eskaera kopuruaren bilakaera hileka
(2007-2008)

	2007	2008
urtarrila	37	44
otsaila	32	42
martxoa	74	29
apirila	33	47
maiatza	52	39
ekaina	42	41
uztaila	23	40
abuztua	4	2
iraila	11	46
urria	40	61
azaroa	37	30
abendua	16	29



3.11. Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan dauden zerbitzuen eta programen eraginkortasunaren eta norainokoaren ebaluazioa

Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan dauden baliabide eta programen eraginkortasunaren eta norainokoaren ebaluazioari buruzko Legearen 51. 2 artikulua betetzearren, baliabide eta programa horien segimendu prozesu progresibo bat planifikatu da, legegintzaldiko urte bakoitzean gaiarekin zerikusia duten sektore baten edo batzuen ikerketari helduko diona. Jadanik eginda daude erkidegoko gizarte zerbitzuetan (2006. urtea) eta zerbitzu polizial eta judizialean (2007. urtea) esparru horretan dauden bitartekoei buruzko azterketak.

Osasun zerbitzuak eta zerbitzu psikologikoak aztertu dira 2008an. Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktima diren emakumeen arreta hobetzeko erakunde arteko akordioaren segimendu batzordean erabakitako jarduera protokoloak eza-gutzeari eta erabiltzeari buruzko alderdiak jaso ditu azterketak.

Abegi baliabideak aztertuko dira 2009an eta 2010ean, azkenik, koordinazio prozesuak baloratuko dira, gizarte zerbitzuak berriro baloratuta. Era berean, esparru honetako jardueraren jarraipen orokorra egingo da, bultzada funtzioari dagokion atalean adierazitako erakundeen arteko akordioaren barruan.

3.12. Aholkularitza eta laguntzarako zein sustapenerako bestelako neurriak ezartzea, enpresak eta erakundeak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko planak, programak eta jarduerak garatzeko bitarteko material, ekonomiko eta pertsonalez hornitzeko

Funtzio hori betetzeko, Emakundek 2008an berdintasun politikak sustatzen jarraitu du lan arloan. Honako jarduerak egin ditu esparru horretan:



Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunean laguntzen duen erakundearen errekonozimendua ematen EJI Eren arduradunei

Enpresa eta erakunde pribatuentzako diru-laguntzak

Enpresa eta erakunde pribatuei aholkulari homologatuak kontratatzeko diru laguntzak emateko deialdiaren bidez zazpi erakunderi eman zaie diru laguntza.

- Lantegi Batuak fundazioa. 6.212 €
- Ingeteam Technology, SA 12.000 €
- Protección y Seguridad, SA 12.000 €
- Eteo, S Koop. 12.000 €
- Poliklinika Gipuzkoa, SA 12.000 €
- Fondo Formación Euskadi. 8.180 €
- INVIZA, SA 11.768 €

Erakunde kolaboratzaile berriak errekonozitzea

Erakunde kolaboratzailearen errekonozimendua jasotzeko eskaerak aztertu dira, 424/1994 Dekretuaren arabera, eta bost erakunde berriri egin zaie errekonozimendua



- Behargintza Txorierrri, SL
- Z&B Auditores, Consultores de Entidades Públicas, SL
- Elhuyar-Zubize SLU
- Campezo Construcción, SA
- EJIE, SA

Erakunde laguntzaileei eta diru laguntza jaso duten erakundeei segimendua.

Erakunde kolaboratzaileei 2007 urteari dagokion segimendu txostena eta 2008rako lanerako plangintza eskatu zaie, 424/1994 Dekretuak ezartzen duen bezala:

Euskadiko Kutxa	Elektra, SA
Vital Kutxa	Arizmendi ikastola
Gestio Estola	Tekniker fundazioa
Guggenheim Bilbao	ESK sindikatua
Metro Bilbao	Eusko Tren (Euskotrenbideak)
EDE Fundazioa	Invesco 2000, SL Zentzu bikoitza
Bilbao Bizkaia Kutxa	Mirugain, SL
Ados Consulting Ikertaldea, SL	Murgibe, SL
Zubizareta Consulting, SL	Sartu federazioa
CDE Aholkularitza	Goiztiri elkarte
OPE Aholkularitza	Bilboko elizbarrutiko Caritas
Robotiker fundazioa	Elhuyar-Zubize SLU
Bultz-Lan Consulting, SL	Behargintza Txorierrri, SL
Labein Tecnalía	Z&B Auditores, SL
ETS, Euskal Trenbide Sarea	Campezo Construcción, SA
Eroski S Koop.	Nazaret Zentroa
LAB, Langile Abertzaleen Batzordea	EJIE, SA
BIC Gipuzkoa Berrilan	IPAR KUTXA
CTI-SOFT, SL	

Enpresetan berdintasun diagnostikoak egiteko metodologia eta berdintasunerako planak

2008an burutu da enpresetan diagnostikoak egiteko metodologiaren prestaketa eta egiaztaketa. Lehendik dauden materialetan oinarritutakoa da metodologia baina enpresa bere buruarekin batetik, eta gainerako enprekin bestetik alderatzea ahalbidetzen duten adierazleak identifikatzeari eman zaio garrantzia. Berdintasun planak egiteko hainbat jarraibide ere ematen dira.



3.13. Emakume eta gizonen arteko berdintasun esparruan zerbitzuak emateko erakundeen homologazioan erabil daitezkeen gutxieneko betebeharrak eta baldintza komun zein oinarritzkoen gaineko eskumena duen organoarentzako proposamena

Empresetan eta erakundeetan emakumezkoen eta gizonzkoen berdintasun gaietan laguntza teknikoa eskaintzeko aholkularitza erakundeen homologazioa 105/2004 Dekretuaren babesean egiten da. 2008an ez da homologaziorik egin, ez baita horretarako eskaerarik jaso. Dena den, dei asko jaso dira homologazio prozeduraren inguruko interesa azalduz.

Dekretuak lehendik homologatuak dauden aholkulariei segimendua egiteko beharra aipatzen du. Hori aintzat hartuta, homologatutako erakundeei segimendua egin zaie. Horretarako, aurrez, homologazioa lortzea ahalbidetu zien baldintzak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzeko eskatu diegu.

Homologadas 2005	Homologadas 2006	Homologadas 2007
NEOTEK Nervión, S.L. MURGIBE, S.L. ENBOR Consultoreak, S.L. CDE Consultoría ZUBIZARRETA Consulting, S.L. ADOS Consulting Ikertaldea, S.L. ROBOTIKER Fundazioa	OPE Consultores, S.L. BULTZ-LAN Consulting, S.L	EDE Fundazioa EQUALA Iniciativas, S.L.

3.14. Herritarrek sentsibilizatzea, eta horretarako egokitzat jotzen diren sentsibilizazio, sustapen eta hedapen jarduerak eta kanpainak egitea; bai emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esanahiaz eta garrantziaz, bai hura lortzearen eta emakumeen jabekuntzaren alde lan egiteko beharraz

Herritarrek berdintasun politiken gainean sentsibilizazio handiagoa izan dezaten, funtsezko kontuetako bat da administrazioek sektore-esparru guztietatik



egiten dituzten jardunei eta dituzten helburuei buruz ematen den informazioa areagotzea.

Horregatik, alde batetik, komunikazio estrategia bat prestatzea proposatzen da, gobernuak gai horretan egiten duena herritarrei hurbiltzeko. Bestetik, sentsibilizazio jarduerak antolatzea; hala nola, gaurkotasunezko gai interesgarrien inguruko biltzarrak eta jardunaldiak. Izan ere, ekimen horiek garrantzi handiko tresna eraginkorra dira; alde batetik, elkarteetako kide diren profesionalak eta pertsonak nahiz beste eragile sozialak elkartzeko eta hausnartzeko aukera ematen dute, eta, askotan, beste esperientzia batzuk ezagutzeko, aztertzen den gaiari buruz beste-lako planteamenduak eztabaidatzeko eta abarretarako aukera dira; bestetik, sentsibilizatzeko elementua dira, prentsan duten presentziari esker, aztertutako gaiak argitalpenetan, artikuluetan eta abarretan zabaltzearen bidez eta abar...

Biltzarrak eta jardunaldiak

NARO 2008 berdintasunerako foroa

Emakundek 2004an abian jarritako gunea da. Erakunde publiko zein pribatuentzat berdintasunaren alde egiten dituzten ekimenak jakinarazteko bali du. Beraz, haren helburuak dira erakundeak, kolektiboak eta entitateak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egiten ari diren lana biltzea, nabarmenaraztea eta sendotzea.



Emakunderen arduradunak 2008ko NARO ekitaldiaren antolatzaileen ordezkari batzuekin

Eraldatzen-
en ekitaldia
Zumarragan,
NAROn markoan



Udalsarea.
Lan Ekintza, Bilbo.
(Naro)





Gure autonomia erkidegoko, estatuko eta nazioarteko hainbat aditu entzutetsuk hartu zuten parte biltzarrean eta berrikuntza landu zuten, hainbat ikuspuntutatik: hezkuntza, osasuna, enpresa eta gizarte.

Emakundek sentsibilizatzeko beste jardura batzuk ere egin ohi ditu, eta legegintzaldian honetan egiten jarraitzen du: argitalpenak, Emakunde saria, Emakunde aldizkaria, erakundearen web orria eta emakumeen zein gizonen arteko berdintasun gaiei buruzko mahai-inguruak eta informazioa nahiz eztabaida zabaltzeko beste jardura batzuk, hedabideetan presentzia izatea barne.

2008. urtean egindako ekimenak honako hauek dira:

Argitalpenak



Equal Kideitu proiektuaren barruan diseinatu eta argitaratutako materialen banaketa¹¹

- Lan munduan generoko mainstreaminga diseinatu, ezarri eta ebaluatzeko gida.
- Enplegu eta prestakuntza sistemen ebaluazioan genero ikuspegia sartzeko oinarrizko gida.
- Enplegua bilatzeko prozesuetan, zehazki, emakumeen autohautagaitza prozesuetan, jabeakuntzarako entrenamendu programa: Parte hartzen duen pertsonaren gidaliburua.
- Enplegua bilatzeko prozesuetan, zehazki, emakumeen autohautagaitza prozesuetan, jabeakuntzarako entrenamendu programa: Orientatzailearen gidaliburua.
- Enplegua bilatzeko prozesuetan, zehazki, emakumeen autohautagaitza prozesuetan, jabeakuntzarako entrenamendu programa: Ikus-entzunezko laguntza tresna.

Honakoen argitalpena eta banaketa:

- *Zirimiriz umeldutako 20 urte*, Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundearen 20. urteurrena oroitzeko. 20.000 ale, ele bitan.
- SARE 2007 biltzarra, *Gizentasuna eta eguneroko bizitzak* bostehun ale pape-rean euskaraz, eta bostehun ale paperean gaztelaniaz, 450 CD euskaraz eta gaztelaniaz.

11 Ikus. 3.1.4. atala





- *Hezkuntza esparrurako hizkuntza gida*, 4.500 ale, argitalpen elebidunak.
- *Euskararen erabilerari buruzko hizkuntza gida*, 4.500 ale paperean, euskaraz
- *Zaintzaren ondorioak. Emakumezkoen eta gizonezkoen eguneroko bizitza uz-tartzeko estrategiak EAEn*. Bostehun ale paperean, argitalpen elebidunak.
- *Berdintasunerako teknikariak kontratatzeke eredu*a. Bostehun ale paperean, argitalpen elebidunak.
- *Aitentzako berdintasun gida*. 32.500 ale, aita biologikoentzako, 1.500 adopziozko aitentzako, ele bitan¹².
- *Aitaren sekretua* ipuina, 34.0000 ale, ele bitan¹³.
- *Gizonak, berdintasuna eta gizontasun berriak* gida, 34.000 ale, ele bitan¹⁴.
- *Aitak* dokumentala. 34.000 ale CDan, lau hizkuntzatan: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez¹⁵.
- 2008ko egutegia, mahaian jartzeko egutegia hamabi euskal emakume artista-ren argazkiekin.
- Erakundearen jarduerak zabaltzeko kartelak eta materiala.

12 Ikus Gizonduz ekimena 3.1.2. atalean

13 Berdin

14 Berdin

15 Berdin



Erakundearen web-ingurunea

www.emakunde.es webgunea eguneratu egin da eta *Euskadi.net* gunera migratzeko prozesuari ekin zaio.

Web horretako edukiak zabaltzen eta eguneratzen jarraitu da; horien artean, plan honetan jasotzen diren ikerketak eta txostenak.

- emakumeen eta gizonen egoerari buruzko txostena,
- botere publikoen jarduera memoria,
- etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeentzako arreta hobetzeko Erakunde arteko Akordioaren Batzordearen txostenak,
- EMAKUNDE aldizkaria,
- gizon-emakumeen arteko aukera berdintasunean laguntzaile gisa aintzatetsitako erakundeak eta gai horretan aholkularitza emateko homologatutako kontsultategiak,
- Erakundearen jarduerari buruzko informazioa ere zabaldu da. Horien artean, urtero egiten direnek gune propioa dute: NAHIKO, SARE, NARO, KIDETU eta abar.

Gune berri bat sortu da *Euskadi.net* gunean:

- BERDINGUNE, gizon eta emakumeen berdintasun ataria; horren edukia etorkizunean gauzatuko diren programa espezifikoek buruzkoa izango da. Besteak beste, Gizonduz-i buruzkoa¹⁶.

Era berean, Emakunde intranet ataria sortu da; atari horretan gobernuko langileak baino ezingo dira sartu, eta haren zeregina izango da, erakundeari buruzko informazio orokorra ez ezik, lan tresnak ere ematea, generoko ikuspegia gobernuko langileengan errazago txertatzeko.

EMAKUNDE ALDIZKARIA

Aurreko urteetan bezala, lau aldizkari argitaratu dira.

- 1 Lehen hiruhilekoko aldizkariak, martxokoak, Emakunderen hogeigarren urteurrena izan zuen gai nagusizat. Erakundeak aldi horretan lortutakoak eta izandako mugariak erreparatu ziren, eta urteurrena ospatzeko ekitaldiari buruzko informazioak eta irudiak jaso ziren.

16 Ikus ekimen horri buruzko informazioa a) 4 funtzioan



- 2 Bigarren aldizkarian, ekainekoan, «Emakumezkoak eta hedabideak» gaia landu zen. Hainbat elkarrizketa eta gogoeta artikuluren bidez, hedabideek aukera berdintasuna lortzeko ematen dituzten urratsak aztertu ziren.
- 3 Hirugarren aldizkarian, irailekoan, «Emakumezkoen arteko maitasuna», lesbianismoari erreparatu zioten.
- 4 Laugarren aldizkarian, abendukoan, 2008ko Nazioarteko Sare Biltzarren inguruko informazioa bildu zen. Biltzarren izenburua «Berrikuntza berdintasunean, berdintasuna berrikuntzan» izan zen. Aldizkarian hizlariari egindako elkarrizketak eta hitzaldien laburpenak daude.



Emakunde saria

2008ko berdintasunaren aldeko Emakunde saria Bizkaiko Emakumeen Asanbladak jaso du, epaimahaiak aho batez hala erabakita. Hogeita hamar urte baino ibilbide luzeagoan emakumezkoen eta gizezkoen berdintasunaren alde egindako lana eta sortu zenetik emakumezkoen askatasun eta justizia bideak zabaltzeko egindako ahalegina nabarmendu nahi izan zuen epaimahaiak.

Bederatzi hautagai aurkeztu ziren sarietara. Helburua da emakumeen eta gizonen arteko berdintasun esparruan egindako lanagatik nabarmendu diren pertsona fisikoek edo juridikoek, publikoek edo pribatuak izandako jarduera azpimarratzea eta jendaurrean aitortzea.

Emakunde saria emateko ekitaldia

2008ko apirilaren 29an egin zen saria emateko ekitaldia Bilboko Euskalduna jauregian. Bagabiltza elkarteak jaso zuen saria Juan Jose Ibarretxe Lehendakariaren eskutik, ekitaldi jendetsuan. Sentsibilizatzeke tresna bat da saria emateko ekitaldia.

Hogeigarren urteurrena ospatzeko ekitaldia

Urteurrenaren harira egindako ekitaldien berri ematen duen atal bat sartu da hasieran. Jarduera guztiek gizarte sentsibilizatzea dute helburua.



Satur Abon Bagabiltza elkarteari emandako Emakunde saria jasotzen

Sari banaketaren eszenatokia



**Echarme una mano
no es suficiente**

Asumamos las responsabilidades por igual
CAMPAÑA POR LA CORRESPONSABILIDAD
8 de marzo. Día Internacional de las Mujeres

EMAKUNDE

Kanpainak

Martxoaren 8a, emakumeen nazioarteko eguna

2008ko kanpainan, nagusiki, erantzukidetzaren garrantzia eta beharra azpimarratu zen; erantzukidetzak, gure ustez, gizarte, familia eta lanbide ardurak bi sexuen

Noticias de Gipuzkoa Miércoles, 23 de julio de 2008

Directora del Instituto Vasco de la Mujer-Emakunde

IZASKUN MOYUA "Queremos conseguir una masa crítica de hombres implicados en pro de la igualdad"

En plena celebración de su veinte aniversario, Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer se encuentra inmersa en el desarrollo de la Iniciativa Gizonduz, una programa pionero, liderado por el lehendakari, Juan José Ibarretxe, y que tiene como objetivo fomentar una mayor implicación de los hombres a favor de la igualdad de mujeres y hombres.

TEXTO N.G.
FOTO CEDIDA

VITORIA. Tal y como explica la Directora de Emakunde, Izaskun Moyua, en el marco de Gizonduz se plantean un conjunto de objetivos y medidas bajo la premisa de que la sensibilización y la formación son la llave para el cambio de mentalidad y de comportamiento, y de que plantear medidas específicas para los hombres facilita su compromiso en la construcción de una sociedad más justa e igualitaria.

¿Es imposible lograr la igualdad sin la implicación de los hombres?

La sociedad es cada vez más consciente de la necesidad de la participación activa y la aportación de los hombres a la lucha por la igualdad entre mujeres y hombres. Cada vez se comprende mejor que la desigualdad entre mujeres y hombres no es un problema de las mujeres, sino de toda la sociedad. Entre otras cosas, porque la consecución de una sociedad igualitaria traerá consecuencias positivas tanto para mujeres como para hombres. Hay que hacer un esfuerzo por demostrar a todos los hombres que la igualdad también les beneficia, que beneficia a toda la sociedad en su conjunto. Quizá esa sea una de las novedades que aporta Gizonduz: la constatación de que la igualdad es necesaria por justicia social, pero también por el beneficio que aporta a toda la sociedad.

Es un tema pionero que parece estar

tomando fuerza últimamente.

Si, pero, a nuestro entender, para lograr la participación de los hombres en la búsqueda de una sociedad más igualitaria no es suficiente con vislumbrar el objetivo, sino que es necesario que haya detrás un proceso de trabajo a través del cual se elaboren instrumentos y contenidos que ayuden a conseguir dicho objetivo. En este sentido, Emakunde lleva años trabajando en este proceso de implicación de los hombres. Desde su creación hace 20 años, Emakunde ha dado pasos también hacia los hombres, investigando las diferentes masculinidades, incorporando a los hombres en cada uno de sus planes de igualdad y en cada una de sus acciones estratégicas. Cuando era un tema aún poco explorado, desde Emakunde ya habíamos de nuevos modelos de masculinidades en el congreso internacional "Los hombres ante el nuevo orden social" que organizamos el año 2001 en Donostia. Y el tema volvió a la palestra con fuerza otra vez, con la celebración del congreso internacional SARE bajo el título "Masculinidad y vida cotidiana", que celebramos el año pasado, y en el que analizamos la incidencia de los modelos tradicionales de masculinidad en la vida cotidiana de mujeres y hombres.

¿Cuáles son las medidas principales que recoge Gizonduz?

La iniciativa consta de un total de 19 medidas con las que se pretende seguir en nuestra Comunidad una masa crítica de hombres implicados en pro de la igualdad que cuestionen la masculinidad tradicional y apuesten por modelos más igualitarios. Queremos una masa de hombres que sirvan de referente para otros hombres y, sobre todo, para los siguientes generaciones, de modo que en un futuro próximo Euskadi sea un referente en el Estado y en el ámbito internacional en cuanto al tiempo dedicado por los hombres al trabajo doméstico y de cuidado, y en cuanto al número de hombres que se han comprometido públi-



Izaskun Moyua, directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.

SUS FRASES

"La desigualdad entre hombres y mujeres es un problema de la sociedad"

LA PROTAGONISTA

- **Lugar y fecha de nacimiento.** Oñati: 17-12-1958
- **Familia.** Casada con un hijo y dos hijas.
- **Carrera profesional.** Licenciada en Psicología por la Universidad Autónoma de Madrid y en Ciencias de la Información por la UPV. Izaskun Moyua comenzó su trayectoria profesional en el equipo técnico de tratamiento directo dentro del área de minervalles del Instituto Foral de Bienestar Social de la Diputación de Alava. Tras trabajos en diferentes áreas de la Diputación Foral de Alava y el Gobierno Vasco, en julio de 2005 fue nombrada directora General de Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer.

especializado, la ampliación de permisos de paternidad y para el cuidado de personas a los trabajadores de la Administración de la CAPV y la promoción de su aplicación en el resto de instituciones públicas y sector privado, así como la entrega de un kit de sensibilización a los padres.

¿Qué tipo de materiales se entregará a los padres?

Se les entregará una mochila, porque el camino hacia una participación igualitaria de los hombres en las tareas de cuidado, pasa por asumir el "peso" que suponen las responsabilidades concretas, o lo que es lo mismo, "aligerar" a las mujeres de las responsabilidades y tareas que tradicionalmente les han sido impuestas. Y en la mochila encontrarán distintos materiales como un documental en donde once padres hablan alrededor de la experiencia de la paternidad, un cuento que narra la relación que se crea entre un padre y su hijo, y todo lo que se puede descubrir en una relación de cuidado; y guías sobre el modelo de paternidad igualitaria sobre la construcción social de las masculinidades, además de otros materiales.

amente a favor de la igualdad y que han participado en procesos de sensibilización y formación específicos en esta materia. Entre las medidas se encuentran la celebración del Congreso Internacional sobre masculinidad que antes he mencionado, la realización de campañas de sensibilización para talleres y grupos de hombres, la elaboración y la difusión de la Carta de los hombres vascos por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres (que se puede firmar en la dirección www.euskadi.net/gizonduz), la puesta en marcha de programas de sensibilización y formación específicos, la creación de un espacio web

gizonduz

Euskal gizonen eskutitza, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra

Carta de los hombres vascos por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres

Basque Men's Charter against Violence towards Women and for Women's Equality

Charte des hommes basques pour l'égalité et contre la violence à l'égard des femmes

www.euskadi.net/gizonduz

eta ekarpena. Hedabideetako parte-hartzea Emakundek antolatutako jarduerak, kongresu eta jardunaldietakoren bat aurkezteko prentsurrekoen bidez gauzatu da; iritzi artikulua eta prentsa oharra hedabideetara bidaliz; eta elkarrizketak emanez idatzizko hedabideei zein ikus-entzunezkoei.



asteazkena
otsailaren 6a
2008. ETXITZA
4.976 ZERBIKADA
1.10 €
www.berria.info

berria

AHT-REN ERAGINA DURANGALDEAN

Azpiegitura handiak mendeetan ukitu bako bazterrak erabat hondatuko dituela azaldu dute kaltetuek | 2-3

Garzonek ANVko presidentea eta bi kide inputatu ditu, alderdiaren jarduna eteteko

■ Defentsak inputazioirik gabe alderdiaren aurkako badaezpadaiko neuririk ezin dela hartu ohartarazi ostean erabaki du inputatzea ■ «Batasuneko arduradunen alde» dirua jarri dutela irizita, ETArri laguntzea egozten die Bereziartua, Gomez eta Arozenari | 7



Juan Jose Ibarretxe, Txaro Artega Emakundeko zuzendari ohia eta eskuzko Moyua egungoaren artean, alderdi politikokoak ordezkaritza zabalak inguratuta, atzo, Lehendakari-tzen. ZUMA/ALZ/FRAGOV/PEB

Emakunde, 20 urte berdintasunaren alde

■ Emakundek parekotasunaren alde eginiko lana goratu eta erronka nagusien errepasoan egin dute urtemugako ospakizun ekitaldian | 12

Osakidetzako sindikatuekin berriro negoziatzeari ekiteko prest agertu da Gabriel Inclan

■ Sindikatuei beste eskaintza bat egingo diela iragarri du, mahai sektoriala bildu eta lan gatazka bideratze aldera | 13

Su-etena eskaini dute gerrillarik Txaden erregimena aldatzearen truke

■ Milaka lagunek egin dute ihes Txadetik Kamerunera | 18

Dena prest dago etzi Nafarroako Bertsolari Txapelketa hasteko

■ 25 bertsolari leihatuko dira, eta erdiak 25 urtez azpikoak dira | 38



GAUR 48 ORRIALDE **HARIAN 2** >> **IRITZIA 4** **EUSKAL HERRIA 7** **MUNDUA 18** **KIROLA 22** **AGENDA 29** **PLAZA 38**

- Jardunaldi baten aurkezpenean parte hartzea: «Adinekoak zaintzen. Zaintzai-leak zaintzen». Otsailaren 18an izan zen Matia Institutu Gerontologikoa fundazioak antolatuta.
- «Desberdintasuna zenbakitan» hitzaldiaren aurkezpena otsailaren 21ean, Montehermoso kulturuneak antolatutako «Haserre begirada» ikastaroan. Ikastaroan emakumeek arlo guztietan jasaten duten bazterkeriari erreparatu zitzaion, artearen arloari arreta berezia eskainiz.

TRIBUNA LIBRE

IZASKUN MOYUA

Fuerza moral frente al atropello

La violencia ejercida contra las mujeres es una herida que duele en todo el mundo. No hay un país en el planeta que haya cerrado la puerta a ese espacio de dolor y sufrimiento que es el grito de las mujeres en el mundo. Es el universal de los universales, el problema origen y resultado de los problemas, el que no entiende de clases, de etnias, edades, culturas o países.

La violencia contra las mujeres es el símbolo más brutal de la desigualdad, se dirige sobre las mujeres por el hecho mismo de serlo, y tiene una macabra característica: no es única en su expresión. Es un atropello que presenta caras diferentes y nace de una tierra envenenada durante siglos por la creencia de que unas personas pueden ser dueñas de otras, hombres dueños de derechos y privilegios, dueños de mujeres. Mujeres sin el derecho a ser dueñas de sus propios cuerpos, ni de sus propias vidas.

La violencia contra las mujeres es algo más que un acto individual. Se la ha descrito como un mecanismo para mantener la autoridad de los hombres, reforzando las normas de género vigentes, y tenemos que apuntar al contexto de las relaciones de poder para poder entender los factores que la impulsan. Una violencia de intimidación para no desafiar ni transformar. Una violencia convertida en arma contra la libertad humana.

Hoy, Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres, millones de voces se están alzando para denunciar todas las caras de esta violencia: la que nace en los propios hogares, la agresión sexual, el tráfico de mujeres, la prostitución forzada, los asesinatos de honor, la esclavitud sexual,


las mutilaciones genitales, el abuso sexual... Todas las formas de horror que hoy están sufriendo en el mundo todo tipo de mujeres y que nos han hecho acuñar el término feminicidio, el genocidio contra mujeres, que sucede cuando las condiciones históricas generan prácticas sociales que permiten atentados contra la integridad, la salud, las libertades y la vida de las mujeres.

Hoy es un día para intentar comprender la dimensión de esta lucha por la dignidad liderada por las mujeres, una lucha que se ha sostenido en el tiempo gracias a la fuerza moral interna que atesoraron y atesoran. Porque hoy, las protagonistas de esta lucha son las mujeres que dicen 'basta', que se rebelan ante la injusticia, que denuncian su situación, y que son quienes enarbolan la bandera blanca de nuestro derecho fundamental: el derecho a la vida y a una vida digna.

No hemos conocido ni sus nombres ni sus caras, han sido objeto de frivolidades

Ellas han sido y son víctimas. Víctimas de muchas cosas, sobre todo de la indiferencia, del olvido. No hemos conocido ni sus nombres ni sus caras, han sido objeto de frivolidades, incluso de bromas. En los últimos tiempos, también son víctimas del espectáculo en que se están convirtiendo sus vidas.

Quisiera brindarles hoy un lugar merecido en el palmarés histórico de luchadores y luchadoras por los derechos humanos y darles la autoridad y el protago-



nismo que se merecen en este camino incansante por nuestros derechos. Sé que el mejor homenaje que podemos ofrecerles y que ellas esperan es empezar a contar cuántas vidas estamos ganando cada día, cuántos asesinatos estamos frenando.

En los veinte años que lleva diseñando e impulsando las políticas de igualdad en nuestro país, Emakunde ha trabajado con el convencimiento de que la igualdad de mujeres y hombres es el único escenario en el que la vio-

lencia que se ejerce contra las mujeres no tendrá papel alguno. En el día de hoy, un año más, mostramos a la sociedad vasca nuestro compromiso firme de continuar trabajando con un sueño: que el siglo XXI sea el del respeto de los derechos de las mujeres y de todas las personas. Que el siglo XXI sea el de la igualdad. Por la vida y la libertad de las mujeres.

Izaskun Moyua es directora de Emakunde / Instituto Vasco de la Mujer

- Tolosako udaletxean, apirilaren 22an, emakumezkoen eta gizezkoen arteko berdintasunerako udal ordenantza onartzeko ekitaldian parte hartzea.
- Emakumezko polizia buruzko biltzarrean parte hartzea. Bilboko Euskalduna jauregian izan zen apirilaren 24an.
- Arabako ASAFIMA Fibromialgiaren Elkarteak argitaratutako fibromialgiari buruzko gidaren aurkezpenean parte hartzea.
- «Etxeko tratu txarren eta sexu eraso biktima diren emakumeei arreta hobea eskaintzeko erakunde arteko II. akordioa» hitzaldia «Etxeko tratu txarren biktima»



- «Etxeko indarkeria eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeek arreta hobeago jaso dezaten erakundearen arteko akordioa» hitzaldia «Emakumezkoen aurkako indarkeriari buruzko I. jardunaldiaren» harira. Azaroaren 13an antolatu zuen Markina-Xemein Lea-Artibaiko Mankomunitateak.
- Honako mahai inguruan parte hartzea: «Generoen berdintasunaren alde gizonzkoen parte hartzea sustatuz: erakunde publikoen ekimenak». «Berdintasuna sustatzeko benetako esperientziak, gizontasun hegemonikoa deseraikitzen abiatuta» jardunaldiaren baitan antolatu zuten mahai ingurua Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateak eta On:giz elkarteak. Donostian izan zen abenduaren 19an.
- «Gizonduz: berdintasunaren alde eta emakumezkoen aurkako indarkeriaren aurka gizonen partaidetza sustatzeko ekimena» hitzaldia, «Emakumezkoen aurkako indarkeria gehiagorik ez III. jardunaldiaren» baitan. Amnesty International-ek antolatu zuen Donostian azaroaren 22an.
- Gizonduz ekimena aurkezteko hitzaldiak eskaini dira Abadiñon, Arrigorriagan eta Derion. Herri horietako udalek antolatu dituzte hitzaldiak azaroak 25, emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren harira.

3.15. Harremanak eta parte hartzeko bideak ezartzea beren helburu edo funtzioengatik erakundearen xedek lortzen laguntzen duten elkarte, fundazio eta gainerako erakundeekin

Emakunde sortu zenetik emakumeen elkarten sarea sustatzeko eta sendotzeko lanean aritu da, esku hartze publikoko esparru ezberdinetan politikak diseinatzen eta erabakiak hartzeko garaian emakumeen partaidetza sustatuz. Horixe izan da beti Emakunderen lehentasunezko jardura ardatzetako bat. Lan hori dela eta, iraganean, arian-arian, elkarteekiko harreman eta truke mekanismoak sortu dira, eta haien arteko trukea eta lan koordinatua ere bultzatu eta babestu da. Horren guztiaren emaitza izan dira bai Emakundeko aholkularitza batzordea bai elkarteek gero eta ekarpen handiagoa egitea berdintasun handiagoko gizarte lortzeko beharrezko sentsibilizazioan eta gizarte aldaketetan.



Egindako bideak posible egin zuen 4/2005 Legean emakumeen parte hartzea eta elkarteen mugimendua bultzatzeko entitate bat sortzea gaineratzea (24.5 artikulua)¹⁷. Ukaezina da entitate hori definituko, sortuko eta arautuko duen prozesua oso konplexua dela, baina era berean Emakunderentzat eta elkar-teentzat ere oso aberasgarri izango da. Prozesu horri goian aipatutako legea onartu aurretik ekin genion eta horretan dihardugu oraindik, sustapena, dinamizazioa eta laguntza tekniko zein ekonomikoa eskaintzeko gogotik lan eginez. Emakundek prozesu horri eusten eta indartzen jarraitzen du. Prozesu horretan sartzen da erakunde bat sortzea eta martxan jartze eta sendotze prozesu konplexu bat.

Esparru horretan, elkarteen arteko sareak sendotzeko bilerak sustatzen jarraitzen dugu. Berdintasunerako Emakumeen Euskal Kontseiluaren etorkizuneko lana erraztuko duten lan batzordeak ere sustatzen ditugu.

Bestalde, Emakundek emakumeen parte-hartze sozio-politikoaren bultzatzen jarraitzen du, modu teknikoan zein ekonomikoa, sortu berri diren elkar-teetan zein dagoeneko existitzen ziren elkar-teak sendotzen eta horiekin elkarlanean aritzen. Alde horretatik, lan egiteko ildo nagusiak hurrengoak dira:

- Aholkularitza, bai haien elkar-teak sortzeko eta kudeatzeko, bai elkar-te horien proiektu eta jardueretan generoko ikuspegia sartzeko.
- Sistematikoki elkartzeko guneak sustatzea, non lan bateratuaren dinamizazioa, prestakuntza, parte hartzeko eredu berrien bilaketa, proiektu orokor-ragoentzako bultzada eta elkar-teen arteko lankidetzaren azterketaren eta adostasunaren ondoren gauzatzen ari baitira; aztertze eta ados jartze hori kontsulta batzordearen barruko batzordeen eta azpibatxordeen bidez lortuko da.
- Laguntza ekonomikoa urteroko diru laguntzen deialdiaren bidez.

Haren helburua da emakumeen parte-hartzea eta prestakuntza bultzatzea helburutzat duten elkar-teak eta jarduerak sustatzea.

Emakundek behar duten laguntza teknikoaren ematen jarraitzen du, bai proiektuak egiteko prozesuan, bai haiek izapidetzerakoan. Horrez gain, beste administrazio batzuk eskaintutako diru laguntzen berri ere ematen da.

Aholkua ematen da aurkeztutako proiektuek generoko ikuspegia izan dezaten.

Elkar-teek aurkeztutako 445 proiektu aztertu, ebaluatu eta laguntza ekonomikoa jasotzeko esleitu dira.

¹⁷ Ikus 3.3 atala: bi sexuen arteko egiazko berdintasun eraginkorra zaindu edo galarazten duten oztopoak kentzera bideraturiko lege erreformak gauzatzeko proposamenak egitea, baita 4/2005 Legea garatzeko arautegiaren proposamena ere



Aurkeztutako proiektuen segimendua egiten jarraitu dugu; sareak sendotzeari buruzko proiektuena, batez ere

Kontsulta batzordeak bere ohiko funtzioak betetzen jarraitzen du, parte hartzeko erakunde berria sortu eta abiarazi arte. Emakundek Euskal Administrazio Publikoaren maila ezberdinetan sortutako sektoreko partaidetzarako organoetan kontsulta batzordeak ordezkari izatea sustatzen eta ahalbidetzen jarraitzen du. Horrez gain, elkarte guztiekin biltzen laguntzen du, toki, eskualde eta lurralde mailan, edozein dela ere horien jarduera eremua eta tokiko eta lurraldeko administrazioekin duten harremana.

Emakunderen kontsulta batzordeko elkarteetako ordezkariak probintzia bakoitzean parte hartzen dute, elkarlan bateratuaren kultura sortzeko asmoz. Horrek ahalbidetzen du emakumeek elkarteetan parte-hartze aktiboa izan dezaten estrategiak zehaztea eta konpromisoak eta etorkizuneko ekintzak bilatzea. Gai horren inguruan 2008an egindako jarduerak hauek dira:

Aholkularitza Batzordearen barruan eta beste lantalde batzuetan dauden batzordeak babestea eta haien segimendua egitea:

- Gizarte bazterketaren esparruan diharduten elkarten batzordea.
- Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeen elkarteak, haien koordinazioa, sarean lan egitea eta elkarte mugimendu horrek lehentasunezko zat jotzen dituen proiektuak erraztuz.
- Emakume alargunen elkarteetako ordezkariekin batzordea.
- Hedabideen eta elkarte mugimenduaren batzordea.

Proiektuak babestea eta haien segimendua egitea:

- EAEko emakume alargunen sareak.
- Lurralde esparruko hedabideak eta emakume elkarten mugimendua.
- Landa eremuko emakume elkarteak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko emakume ijitoen elkarteak.
- EAEko emakume ezinduak, lurralde bakoitzeko erakunde mistoetako emakumeen sailaren ordezkari izateko osatuta.
- Toki, eskualde eta lurralde mailako sareak babestea.
- Sareko trebakuntza programei sustapena, laguntza eta segimendua egitea.



Prestakuntza jarduerak

Emakumeen elkarteen artean eta haiekin elkartzeko guneak errazten eta sustatzen jarraitu dugu, eta horietan, besteak beste, prestakuntza beharrak aztertu dira, baita antzeko prestakuntza interesak dituzten elkarteen artean prestakuntza proiektu koordinatuak antolatzeko estrategiak ere. Xedea da elkarteak berak autoantolatzea beraiek lehentasunezkoztat jotako prestakuntzaren kudeaketan.

Hortaz, lurralde bakoitzean eta eskatzen dituzten eskualdeetan elkartzeko eta prestatzeko jardunaldiak bultzatzen eta dinamizatzen jarraitu dugu, partaidetza eraginkorrago eta horizontalagoaren oinarriak finkatzeko; bai emakume erakundeen barne dinamikari dagokionez, bai haiek tokian tokiko, lurraldeetako, autonomiako, estatuko eta nazioarteko sareetan duten parte-hartzeari dagokionez.

Euskal Herriko IV. jardunaldi feministak

Feministen elkarteekin elkarlanean aritu ginen 2008ko apirileko jardunaldiak antolatzeko. Maiatzaren 28an sinatu genuen hitzarmenean oinarritutako elkarlana izan da.

Emakume enpresarien XIX. biltzar iberoamerikarra

Euskadiko emakume enpresaburu, zuzendari eta profesionalen federazioarekin elkarlanean 2008ko azaroan egin zen biltzarra antolatzen lagundu genuen diru laguntza izendun bat emanda eta uztailaren 29an hitzarmena sinatuta.

Trukerako laguntza

Trukea bultzatzen ari gara estatuko eta nazioarteko emakume elkarteekin eta beren jarduera hainbat esparrutan gauzatzen duten beste elkarte misto batzuekin. Jarduera horien osagarri, eta emakume elkarteek egindako eskari bati erantzunez –eskaria, bestalde, bat dator beste erakunde batzuek eta partikularrek agertutako interesarekin– *EAEko emakume elkarteen gida* banatzen eta eguneratzen jarraitzen dugu. Gida horri esker, erraz eskura daiteke esparru horretan egiten diren proiektu eta jarduera anitzei buruzko informazioa, eta emakumeek (banan-banan zein elkarte gisa) eta entitate zein erakunde publiko eta pribatuek aukera dute beren jarduerak errazago koordinatzeko eta haietan parte hartzeko. Era berean, *EAEko Gizon eta Emakumeen arteko Aukera berdintasuna Sustatzeko Elkarte Mistoen, Erakundeen eta Taldeen Helbidetegia* berrikusten eta zabaltzen jarraituko da; haren helburua da bitartekoak koordinatzea eta optimizatzea eta tresna izatea esperientzien trukea sustatzeko eta, horren ondorioz, elkarteen arteko sareak sortu eta sendotzeko.

3.16. Beste autonomia erkidegoetako, estatuko eta nazioarteko antzeko instituzio eta erakundeekin harremanak eta partaidetza bideak ezartzea

Erakundearen helburuen antzeko helburuak dauzkaten beste instituzio eta erakundeekiko lankidetzak eta parte-hartzeak beren horretan jarraitu dute Emakunderen jardunean, eta haiek handiagoak edo txikiagoak izan dira une bakoitzean dauden baterako proiektuen arabera, eta beste komunitate batzuetatik, estatutik edo Europako zein nazioarteko beste esparru batzuetatik iristen diren lankidetzak aukera eta/edo eskaeren arabera.

Hiru lan ildo desberdin ezartzen dira:

Estatua eta Autonomia Erkidegoak

Emakumearen batzar sektorialean hartu du parte Emakundek. Organo horren helburua estatuko administrazioaren eta autonomia erkidegoen arteko lankidetzak bultzatzea eta bakoitzari dagozkion eskumenen alorrean emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunari buruzko jarduerak koordinatzea.

Emakumeen aurkako Indarkeriaren Ordezkaritza Bereziak autonomia erkidegoekin egiten dituen bileretan parte hartu da. Bileren helburua da estatuko administrazioaren eta autonomia erkidegoekiko lankidetzak bultzatzea, eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzio eta desagerrarazte esparruan egiten diren jarduerak koordinatzea.

Era berean, informazioa eman zaio Estatuko Administrazioari erkidegoak arlo horretan egindakoari buruz, eta, horretarako, dagozkion txostenak prestatu dira.

Emakundek Intercambia sarean hartu du parte. Emakumearen Euskal Erakundeak eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak abian jarritako sarea da. Sarean parte hartzen dute autonomia erkidegoetako berdintasunerako erakundeek eta hezkuntzako kontseilaritzek. Helburua esperientziak trukatzeko eta hezkidetzari dagokionez informazioarentzako eta lankidetzarako bideak ezartzea da. 2008an hezkidetzarako materialen hirugarren katalogoa argitaratu du sareak eta urteko azken hiruhilekoan urteko laugarren topaketa egin dute. Gainera, aurreko burutu da Intercambia atariaren diseinua, eta hura 2009ko Intercambia topagunean aurkeztuko da jendarean.



Izaskun Moyua
mahai-inguruan



- Madrilgo Biltzar Jauregian egindako «Feminismoaren agenda XXI. mendean. Emakumeen garaia, askatasunerako garaia» Nazioarteko Biltzarrean parte hartzea.

Europako erakundeak

Europa mailako proposamenen, ekimenen, proiektuen eta esperientzien segimendua egin da gure erkidegoko erakundeei eta organismoei informazioa emateko bategi, eta Europa eraikitzeko modu aktiboan lan egiteko, bestetik. Horretarako, lankidetzan jarraitu dugu Euskadik Bruselan duen Ordezkaritzarekin eta Eusko Jaurlaritzako Europar Arazoetarako Zuzendaritzarekin. Honakoen inguruko izan da segimendua, batez ere:

- Kontseiluko presidentetza.
- Generoko Berdintasunerako Europar Erakundea.
- EBn genero berdintasuna izateko ibilbide orria.
- Autonomia erkidegoen parte-hartzea Europar Batzordearen Kontseiluan¹⁹.

19 1996an, eta CARCE (Europar Erkidegoekin Erlazionatutako Gaietarako Konferentzia) barruan hartutako akordioetatik abiatuta, parte hartzeko aukera eman zitzaizkien autonomia erkidegoei Batasuneko Kontseiluko maila batzuetan. Zehazki, irekitako prestakuntzak honako hauek dira: Ingurumena; Hezkuntza, Kultura eta Gazteria; Enplegua, Gizarte Politika, Osasuna, Kontsumoa eta Nekazaritza.



Emakunderen arduradunak eta Mercedes Boschi, Buenos Aireseko Gobernuaren Emakumeen zuzendari nagusia

Rosarioko Emakume Abertzale Batzari egindako omenaldia

TXILE

Txileko Emakumearen Zerbitzu Nazionalarekin hitzarmen bat sinatu dugu, bi erakundeek, bakoitzak dagokion gizartean, berdintasunerako politika publikoak sustatzeko, hedatzeko eta horien garapenean eragiteko duten gaitasuna sendotze aldera. Emakundeko zuzendari Izaskun Moyuak eta Txileko Emakumearen Zerbitzu Nazionalako ministro Laura Albornozeke lankidetzarako memoranduma sinatu zuten Txilen urtarrilaren 14an.

Hitzarmen horri esker, gure herrialdean eta erakundeetan bisitan izan genituen Gustavo Almendras, Txileko Emakumearen Zerbitzu Nazionalako Eskualde Zuzendaritzako Komunikazio arduraduna eta Gloria Fuentes, Txileko Emakumearen Zerbitzu Nazionalako Lanerako Jardunbide Egokien Unitateko arduraduna.

ARGENTINA

Bidaia instituzionala. Emakundeko ordezkariak nazional kongresuan harrera egin zieten eta laneko bilerak egin zituzten Emakumearen Kontseilu Nazionalako, Buenos Aires hiriko Gobernuak, Argentinako Gobernuak Kanpo Harremanetarako Ministerioko eta Lan Ministerioko ordezkariekin. Horrez gain, Emakundeko zuzendariak hitzaldi bat eskaini zuen Buenos Airesen «Estatuaren adostasuna genero bazterkeriaren aurka: emakumezkoen eta gizonezkoen arteko benetako berdintasunerantz» programaren baitan, INADik antolatuta. Gainera, bidaia Buenos Airesko eta Rosarioko Emakume Abertzale Batza omentzeko ere baliatu zuten.



Izaskun Moyuak
Santo Domingon
emandako hitzaldia

Malalai Joya eta
Izaskun Moyua



Emakumeen
Ibilaldi Baketsuak
mugimenduko
ordezkarien
bisitaldia

Argentinako
parlamentuko
ordezkaritza baten
bisitaldia

SANTO DOMINGO

Emakundeko zuzendari Izaskun Moyuak eta idazkari nagusi Arantza Madariagak FEDOMU Udalerrien Federazio Dominikarrak antolatutako udalerrien biltzar nazionalen hartu zuten parte, Santo Domingon, azaroaren 27an eta 29an. Bertan, Emakundeko zuzendariak «Euskadi: berdintasun politikak udal mailan» hitzaldia eskaini zuen. Emakume Dominikar Munizipalisten Batasunak (UNMUNDO) gonbidatuta izan zen Emakunde biltzarrean. Elkarte hori FEDOMUren kide da.

Hona hemen beste jarduera batzuk, beste herrialde batzuekin egindako elkarlanari dagozkionak:

Afganistango Malalai Joya parlamentaria Emakundeko zuzendariarekin, Izaskun Moyuarekin, bildu zen urriaren 29an Emakunderen egoitzan. Malalai Joya hainbat bider hiltzen saiatu dira eta heriotza mehatxupean bizi da emakumeek jasaten duten zapalketa salatu duelako.

Emakumeen ibilbide bakezalearen ordezkariarekin bilera.